

anaitasuna

1979.EKO URTARRILAREN BIGARREN HAMABOSTALDIA 376.ALEA 60 PZTA.

HAUTESKUNDEAK 79



anaitasuna

euskal herriari,
informazioa
euskaraz.

EUSKAL PRENTSA
EUSKALDUNON HITZA

zeruko
ARGIA

GEU
GARA
EUSKAL
PRENTSA

anaitasuna

zeruko
ARGIA

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALTZAINDIA
BILBO

2125

28 JUN. 1979

AURKIBIDEA



3. Aurkibidea
4. Editoriala
5. Autobidea dehainik!. (Itziar Berroa)
6. Serio, baina ez hainbeste. Pornografia ANAITASUNAKo horrialdeotatik?. (T. Trifol)
7. EGIN dela eta tristuraz. (Endika)
8. Euskadin, euskaraz. Iparraldean euskara nola baliotu?. Kanpaina bat egiten da. (M.L. Uhatize)
10. CGV eta ETA.(Ramon Garai)
12. Beste ekologia (X. Kintana)



14. Hamabost egun hankaz gora. (I. Zabaleta, B. Zia)
16. Ohar laburrak

18. Algerian iragana eta etorkizuna. (M.J. Esteban)

20. Emakumeek emakumeak maite dituztenean. (I. Urtasun)
22. Txomin Artolarekin berbetan. (Karlos Arko)
25. Sukalderako saltsak



- 26 Masak ala eliteak. III (Galtzagorri)
28. Kooperatibak sozialismo bidean (II). (K.L.B.)
30. Eguraldia igarteko era zahar bat. (J.R. Otaola)
31. Komikia. X. Etxenike
32. Euskal eskola publiko eta herritarrentz (E. Martin)
34. Napoleonen mitoa. (X. Gereño)
36. Autonomia eta baliabide naturalak Euskal Herrian.(Iñaki)
37. Gizaki. (Gentz)
38. Zinema Autorea denean. Federico Fellini. (J. Sarrionandia)
40. Zenbakien erabilera. (J. R. Etxebarria)
41. Gurutzegrama. (L. Trask)
42. Ardibeltza.(Monty) Labyrinthoa.(X. Kintana)



anaitasuna

KOORDINAKETA

J.R. Etxebarria

ERREDAKZIOA

J.Llerandi, T.Trifol

ERREDAKZIO KONTSEILUA

J. Agirreazkuenaga, M. Alvarez,
B.Atxaga, J.R. Etxebarria,
E. Knör, J. Idigoras, J.Llerandi,
E. Martin, T. Trifol, I. Urtasun,
I. Zabaleta

ARABA

E. Knör

BIZKAIA

J. Llerandi

GIPUZKOA

I. Urtasun, A. Oiartzabal

IPARRALDEA

M. Lanatua

NAFARROA

I. Zabaleta, B. Zabaleta

NAZIOARTEKOA

M. Alvarez, A. Eskisabel, M.J. Esteban, T. Trifol

IDAZLE ETA LANKIDEAK

J. Artzelus, X. Gereño, J.M. Torrealday, X. Kintana, A. Eguzkitza, P. Agirrebaltzategi, I. Azkoaga, J.L. Alvarez(Txillardegia), A. Loroño, J. Mendizabal, J. Azurmendi, M. Haranburu, M. Lasa, R. Ordorika, E. Entziondo, S. Laffite, M. Pagola, K. Anakabe, J. Sarrionandia, J.J. Bakedano, Natxo de Felipe, F. Alaña, J. Etxebarri, B. Barandiaran, K. Arko, J. Iturbe, M. Otazurialde, J.R. Bilbao, J.M. Arzubiaga.

MAKETAPENA

R. Zumalabe, J. Etxebarri

KOMIKIAK

A. Olariaga, I. Lauzirika, B. Zia, X. Etxenike, Gentz, Monty.

MARRAZKILARIAK

Ttua taldea

PUBLIZITATEA

ETA

HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA

Zabalbide 68-entlo. BILBO 6

Tfnoa: (9)-4- 4335808

MOLDIZTEGIA

Iparragirre S.A.

Carretera a Galdacano s/n BILBO

Lege. Gor. D.L. Bi-1753-1967

HAUTESKUNDEAK 79



Urtebete t' erdi pasaturik, Ekainaren 15 hartatik, ba datozkigu berriz hauteskundeak. Aurrekoetan hasitako prozesuaren fruitu nagusiak konstituzio hori eta CGV ditugu.

Gure Herriaren oinarrizko eskubideen onartzerik ez zekarkigula eta, Euskal Herriak gaitzetsi egin zuen konstituzioa. Euskal Kontseilu Nagusiari dagokionagatik, hor dago, planteiatu ditugun arazo nagusiei erantzun emateko gauza ez delarik, mugaz beterik eta ahalmen urriz. Ez du ematen, bada, parlamentutik orain arte euskaldunok onura handirik jaso dugunik.

Suarezi hobeki datorkion mementuan eta moduan, hauteskunde jeneralak izanen ditugu, eta gero, aspalditik eskeka ari ginen udaletxe-etakoak. Oraingotan ere, eskuinak karta hoberenak ditu bere eskuetan. D' Hont lege antidemokratikoa mantendu egiten da, guttiengoek lor lezaketen ordezkariak ezabatzeko prest. Kanpainian zehar eraginik handiena daukaten komunikabide estataletan ere ez dute guztiek toki bera izanen.

Estatu mailan, panorama ez da lehengoaren modukoa eta inkestak gehienek ehuneko 30tik gorazko abstentzioa aurreikusten dute. Euskal Herrian, konstituzioaren erreferenduak Ekainaren 15 hartan agerturiko indar erlazioa desberdin samarra datekeela erakutsi zigun.

Hego Euskal Herriko alderdi eta koalizio gehienek parte hartzeko erabakia hartua dute, programa eta helburuak desberdinak dituztelarik. Ezkerrak, eta honen barnean ezker abertzaleak ez du honetan ere batasunik erdietsi; kontsologarritzat balio ez badigu ere, esan dezakegu eskuina ere zatikaturik doala.

Koaliziorik egokiena eta bultzatu behar dena zein den esatea ez da aldizkari honen egitekoen artean sartzen. Baina beren buruak euskalduntzat eta ezkerrekotzat jotzen dituzten alderdi edo eta koalizioei, gure eskubideen egiazko defentsa ausarta egin dezaten eskatu behar diegu; ez dezatela ahantz autodeterminazio eskubidea oraino eskuratu gabe dugula; Euskal Herriak ez duela konstituzioa baietsi, tristea bailitzateke, erreferendum onetsi ez zena, alderdi politikook herriaren izenean baiestea. Ez ditugu gure helburuak konstituzioaren hesparruan mugatu behar. Euskarak pairatzen duen egoeraz ere kontsekuenteki joka dezatela, sasoi baitugu alor honetan hitz ederrak eta aitorten ideologikoak uzteko eta praktikara pasatzeko. Orain artekoak konpontzen hasteko sasoi egokia dugu, bestela Euskal Herria frustratzen has bailiteke.

Autobidea dohanik!

Donostia eta Irun arteko kamino jeneraletik, egunero 30.000 bat ibilgailu, hauen artean kamioi handienetakoak, igaroten dira. Kamino honek, bidean aurkitzen dituen herriak, Herrera, Pasaia eta Errenteria, erdibitu egiten ditu, egoera honek dakartzan arrisku eta istripuak nabari direlarik.

Kamino jeneral hau ez da ordea tramo hau betetzeko dagoen bide bakarra. Donostiatik Irunera ba dago autopista eder bat. Hau egin zuteanean, hainbat paseialeku desagerrazi zuten, bailara honetan hain beharrezkoak ditugun berdegune asko hondatu zituzten. Baina, nahiz eta eraikuntza honen ondorioak sufritu, ezin ditugu ekar ditzakeen abantailak aprobetxatu. Horrela Donostia-Irun bidea autopistaz egin nahi badugu, ordaindu egin behar, eta noski, problema larriago egiten den orduetan, hots, lanera sartzean eta bertatik irtetean, langileak dira automobilez joaten direnak. Beraz, ez da bizioz izaten, autopistatik joan beharrean, kamino jeneralean egiten diren iladetan, sobra ez duten denbora hori pasatzen badute, behar beharrezkoa zaigun denbora hori pasatzen badugu.

BORROKAREN HASIERA

Errenteriako Hirigintza Koordinatzaileak izan zuen lehendabiziko ideia eta beste herrietako hauzo elkarteek egin zien dei. Uda ondoren bildu ziren ba, Donostia, Pasaia, Errenteria, Lezo, Oihartzun, Irun eta Hondarribiako hauzo elkarten ordezkariak.

Elkarrekin, kanpaina bati hasiera ematea erabaki zuten. Eta honetarako plangintza bat egin ere, bertan hiru maila bereizten zituztelarik. Oinarrizkoa, jendearen artean arazo honi buruzko kontzientzia zabaltzeari zeritzoten; hau betetzeko, pegatinak, pankartak eta panfletoak kaleratu zituzten. Udalei, problema bere eskuetan har zezatela eskatu zieten eta urrutirago jotzea beharrezkoa zenez, Euskal Kontseilu Nagusiko Bandres-ekin hitzegitera joan ziren; honek, EKN-k erabaki praktiko bat hartzeko zituen posibilitate kaxkarrak ikusarazi zien, baina beren ekintzetako eta bai "Ministerio de Obras Públicas"-en delegaziora joateko, laguntza eskaini zien.

Kanpaina, oraindik propagandan eta eskakizunetan dago. Hauzo Elkarteek txosten bat argitaratuko dute herrietan zabaltzeko eta hortik mobilizaziora pasatzeko ideia dute, efektiboena hori delakoan.

"PEAJE"RIK GABEKO AUTOBIDEA: SOLUZIOA. BAINA... NOIZ ARTE?

Gure Gipuzkoa oso menditsua da. Batzuen eritziz gehiegi. Progresoa asko jaten du, eta mendiak asko gus-tatzen zaizkio. Nortzuren progresoa? Hemengo autobideak, Estatu-ko garestienak omen dira, mendi asko dagoelako eta esaten dutenez, diru asko eraman duelako eraikuntzak. Garraio publikoak, ez dakit inon okerragorik izango den... Batetik bestera ibiltzeko, automobila beharrezkoa egin zaigu GUZTIOI. Automobila egiten dituzten enpresek, saldu egin behar dituzte nola edo hala, dirua irabazteko. "Epeka ordaindu! Kredito bat eskatu! Mila erraztasun edukiko dituzu guregana etortzen bazara zure ametsetako automobila erostera!". Guztiok dugu gure bizimodua hobea egiteko eskubidea, eta automobila posibilitate berriak eskaintzen dizkigu. Baina zer gertatuko da, guztiok gure automobila esku-ratuko dugunean? Autobide guztiak gutxi izango dira guretzat.

Zer esanik ez hirietara sartzean. Presaka bagabiltza hobe izango dugu automobila utzi eta oinez joan...

Ez da hirigintza-fikziorik egin behar egoera nola agertuko zaigun, aurrean ikusteko. Aski da hiriburu batean automobilez ibilaldi bat egitea eta aparka leku bat bilatzea. Leku hau aurkitzeko sortzen diren istiluak! Azkenean, eroaleekin karraxi batzu elkarri banatu ondoren eta inguruetatik hainbat buelta eman, eta automobila hor uzten dugu, bi kilometrotara gutxi gora behera. Autobusa hartu bagenu...

Hau orain; hemendik urte batzutarra, oraindik ordaindu gabeko automobila non gorde ere ez dugu jakin-go.

Gure garraioen etorkizuna ez dago automobilean. Beraz, beste aukerak egin behar ditugu jadanik, eta hasteko, garraio publiko on batzu exigitu.

I. Berroa



Serio, baina

ez hainbeste (Pornografia ANAITASUNAKO horrialdeetatik?)

Ez dago adarra jotzeko nahirik gure aldetik. Gertatua, gertaturik omen eta esana berdin.

Gure erredakziozko bileratan ba daude batzu ideia bitxi eta berriekin datozkigunak. Lehengo egunotan, jadanik bi aldiz eta etengabeki, pornografia hitza atera omen zen lotsa-gabeki.

...*"komenigarria izanen litzatekeela "horrelakoren bat" guk ere argitaratzea"*. Ez dut nik esango, Axularren *Gero*-n bezala, han bertan zeuden guztiak niri begira hasi zirela, ni nintzean asuntu honetan eskuak sartzeko egokiena errepikatuz. Ez, ez zen zehazki hori, gainera eskuak sartzekotan, bat ezik, beste guztiak prest zeuden. Dena den, negozioa justu justu ez zen bertotik urrun ibili. Gero ikusiko duzue zergatia.

Eta serio ari garenez, esan dezagun irmo, pornografia arazoa bi aldiz planteiatu dela gure bileratan. Bietan azkenez, postre gisa, gure erroiluen kontsolamendutzat, ez baitugu oraindik asuntu guzti hau kontsolagailutzat hartu gure bileretako azken minutuetan.

Erredakzio kontseiluari, hitza bera erabiltzea ez zitzaion gustatu. Burjeseriaren tranpan erortzea izanen litzateke. Eta berba aldaketa inposatzekoa zenez, produktu berbera presentatzeko, ba, bazterrak zaindu behar. Hitz kamuflatu asko presentatu ziren. Erotismoa, bizitzaren ikuspegi... latza, ...*(Mujica Herzog-en bat biluzik atereaz noski)* edo eta ikuspegi berezi bat... *(pantaloiak kenduta, pentsa ezazu Anaitasunako irakurle hori, nolako argazki bereziak izanen liratekeen Anaitasunakoak)*. Beroriekin batera zelako trabailu eta nekea gurea, gizon guztiak aldeztu aurretik pantaloiaz jantzi behar, Anaitasunaren emakume fotorik asko ez baitago.

Bileraren amaieran beraz, huntaz eta soilik huntaz mintzatu zen. Gero, gerokoak etorri... ez pentsa gaizki Anaitasunako irakurle maitea!... gainera nahiz eta ongi pentsatu, idazleok idatzi egiten dugu soilik. ...Beno, eta gero zer?

Katxondeotan sarturik geundela baten batek asuntuok grabaek omen, eta seriositasun handiez erabili behar zirela.

"Zergatik adarrak jotzen ibi?" behar erotismoz edo biluztasunez mintzatzeko geundela? Eta zergatik ez diogu



Begoña eta Txomin erredakziokideok Anaitasunako elkar ikuskak desmitifikatzen ari dira. Ikus zelako naturaltasuna.

barrerik egiten Fisio-Aztarnen bidezko datazioari?"...esan zigan.

Egia esan, gure ordurarteko proposamen eta aurreprojektu guztiak kilin kolo geratu ziren. Matxismo, feminismo, burjeseria, fetitxismo eta Euskal Herrian eztabaidatzen hain ongi dakigun beste ismo guztietaz ari ginen luzaro.

Berriro, egun guztietako biluzkeria etorri zitzaigun erredakziozkoen aurpegiak ilunduz.

...*"Adarra jo, adarra jo dela dio"* ziotan nire trabailuetan dudak kamarada Joxek. *"Jo bai, baina ez adarrak koino!"* Hain atsekabe handia izan zen geurea, non gure irakurle maiteon idazle ezaguna den Itziarrek biluztasun pornografikoaren desmitifikazioa egin genezakeela gure horrialdeetatik aurkeztu zigan. Eredutzat, bion artean egindako edozein elkar ikuska serio bateko argazkietan

bera eta neu biluzirik tartekatzea. Beste batzutan ere, biluzik, gure famatuen zerrendak ere agertuko lirateke. Mario Onaindia, Jon Idigoras, Bandrés, Solagaistua, Maturana eta Irujo, noski. Horrelako desmitifikaziorik egin beharrez gero ez zitzaien bātere asuntu pornografiko horiek interesatzen lřakiri eta berdin elefanteak agertzea ematen ziola esan zigan, nahiz eta nik elefanteak biluzik Euskal prentsan agertzea pornografiatzat hartu behar zela esan arren.

Ez da egon beraz kontsentsua bileran. Bai al ez. Nortzu daude alde eta nortzu kontra? Eta zein da hortaz zuen eritzia, irakurle? Zain gaituzu Anaitasunan, eta gustatu ez bazaizu ideia ere, zaude lasai, beste batean baten batek Leitzan egiten den Artadiko praktikaz argituko zaitu.

T. Trifol

"EGIN" dela eta, tristuraz

egin

Abenduak 27an, zenbait egun argitara gabe, "EGIN" plazaratzen zen berriro. Ezker Abertzaleak, euskal ezker osoak, bereganatzen zuten, honela, beste puntu bat, ezker guztiaren desprestijio eta beherapenean; "EGIN" izan baita, duda gabe, azken denboraldietako herri errealitate irmoena Euskal Herrian.

"PUNTO Y HORA"REN BIDETIK

Gaur egungo euskal gizartean, gertakarietarik, esperientzietarik deus ez ikastea karakteristika nazionalizat hartu beharko genuke. Hola ulertu ahal dugu sortu diren astekariak, "Garaia", "Berriak", "Punto y Hora", lur jotzea. Kazeta baten itodurak, ez du, antza denez, fitsik esan nahi hurrengorako, eta hutsune berberak sortzen dira behin eta berriro.

"Punto y Hora" k, konpetentziarik gabeko euskal astekaria, bere burua lurperatzea eskuratu du, kasik, eta sail berri bat ideki ere euskal herriko kazetaritzan, despedituena, halegia. Egia esan, harrigarria, euskaldunon optimismo mugagaitzean, holakorik ez baitzen posible —ustez— kazeta jator batetan. Errealitateak, berriro ere, pentsamendua baino urrutirago jotzen du. "Magistratura de Trabajo" n aste bat lehenago zekitenez gero, "Punto y Hora" ko langileek, Mirentxu Purroy eta beste bi salbu, maitzaren 12an, despedituak zeudela jakin zuten. Azaroaren 25ean duten hauziaren ondorioz, Magistraturak

arrazoia ematen die langileei. "Punto y Hora" k, orduan, krisi agiria presentatu zuen. Ez dago segidarik, beraz, aldizkari horrentzat.

"POSIBILISMOAREN BIRUSA"

"EGIN" ek, "gure egunkaria", familia guzia diruz hustiratzea partaide egiteko, lagunak eragin erosteko, kartak, eritziak, Fundatzaileen arteko burrukak, eta beste gauza asko, esperantza haundi bat ere, esan nahi du. Horrexegatik, gogoz eta lagunduz, jarraitu dio ezkerrek proiektu honi. Artean bi erizpide, elkarren kontrakoak agertuz doaz egunkarian. Zenbaitentzat "EGIN" ek Ezker Abertzalearen egunkaria behar luke izan, "españolistak" eta "erreformistak" bloke horrez kanpo genituzke. Besteontzat "EGIN" biziko bazen, euskal ezkeraren egunkaria izango zen, ala ezer ez. Juan Ramon Martinezek esaten zuenez duela zenbait hilabete, elkar ikuska batetan, beste arrazoinen artean, Ezker Abertzalean mugatuz, aurrera ateraezina eta antiekonomikoa gertatuko baitzen. Pentsakera hori dugu beharbada, Josu Barandikak, urtemugaren zenbakian "posibilismoaren birusa" deitzen zuena.

HERRIGINTZAREN IZENEAN

Hauzi horren ondorioz erizpide bat atera zen garaile, azken batez, enpresa guzietan "ordaintzen duenak, agintzen du", eta "EGIN" en, miloi bat botu bat, fundatzaileek agintzen dute. Hauek nahi izan zuten Mirentxu Purroy direkziarako; beste aldekoentzat "Punto y Hora", bere inkompetentziaz lurperatu duena. Fundatzaile horiek, maioriaz, garaiatu zuten: hamahiru langile kalera eta Mirentxu Purroy direkziara.

Hauziaren ondorengo lehen numeroan, zuzendariaren izenik gabe aterea, Fundatzaile eta Administrazio Kontseilukoek ematen zituzten beren arrazoiak. Hartan esplikatzan zuten nola beraiek zuten, eskusiboki, direk-

zioaren postutarako hautatzeko eskubidea, herriaren ordezkariak baitziren. Hartan ere, nola langile grebalari horiek protesta egin zuten, fundatzaileak Bilboko erredakzioan ez zeudela akort delako huelgarekin.

Informazio zehaztugabea, antza denez, ahanzten baitute fundatzaile horiek, zenbat diren bazkideak eta zenbat ohi diren zonetako bazkideak, fundatzaileen batzarretan; ahantzi ere nola soldata egun bat deskontatu zieten langileei, Mondragoeko hilketen ondoren solidarizatu zirenean, huelga egin zutenean; ahantzi, azkenik, Bilboko erredakzioaz mintzatzean, nola EGINeko langile guzien batzarretik, Bilboko bi langile fundatzaileak zirenak ere, Juan Mari Arregi eta Periko Berrio espulsatuak izan zirela.

AMAIERA?

CCOOkoek, Euskadiko Ezkerra-koek, Irrati-prentsako ehun eta hogeita langilek, tartean "Punto y Hora" ko zazpi despedituek, egin zuten protesta fundatzaileen jarreraz. Grebaren ondorioz, protesta horiengatik ere, langile guziek lortu dute lanposturik ez galtzea. Hauziak zutik dirau, halere. Problema gaitza, nonbait, konklusio arinegiak ateratzeko. Baina ez da horrexegatik, hain zuzen, isiltzeko garaia, ez dirudi, bestetik, langileak alboratuz, "herrigintzaren ordezkari ofizialek" azken hitza eduki beharko dutenik.

Endika

egin

Euskadin euskaraz

Iparraldean, euskara nola baliotu? Kan



Euskara eta euskaraz bizitzea nahi duten
ahotsa, gero eta
ozenkiago ari da entzuten
Ipar Euskal Herrian zenar. Eta bertan
ere jo eta ke ekin zaizkio
"Bai Euskarari" kanpainari.

Iparraldean euskara galtzen ari dela, aspaldiko konstatazioa dugu. Euskaltzale zintzo asko saiatu da nolabait arazo larri honi erantzuten. Ikusten denez arazoaren mamia ez da bakarrik azalezko gauza bat, baina euskal nortasunaren eta zuzenaren arazoa da. Adibidez, ba dakigu Euskadi euskararik gabe ez dela gehiago Euskadi. Populu batetik bestera Euskal Herriaren benetako diferentzia euskara da. Euskara nola baliotu, euskara nola aurreratu, bi galdera hauetarik abiatu dira euskaltzale batzu, euskararen aldeko kanpaina bat eramateko. Pertsona eta elkarte horik dira, besteak beste, Miarrizteko abertzaleen taldea, Jazar, Euskal Ikasleen Batasuna, Bidegain Xarles Baionakoa, Etxebehere Peio Pagola-koa, Haritzelhar Xabi. Xarles Bidegain eta Xabi Haritzelharrek diotenez "Euskararen aldeko kanpaina hau, aurtengo uda baino lehenago asmatua genuen. Hala ere, kanpaina honek ez du beharrik kulturazko gauza hutsa izan nahi, hain zuzen, kultura ez baita bakarrik kulturazaleen eskutan utzi behar. Uste dugu talde

politikoek ere arduratu behar dutela kulturaz talde politiko bezala. Egia da, ekonomi maila garrantzitsua dela, baina ekonomia ere euskaldun bezala bizi behar dela esan behar da. Gainera, atzeramendu ekonomikoa eta atzeramendu kulturazkoa, biak kapitalismoak dakazkigu".

Eta Xarles Bidegainek, jarraitzen du kanpaina honen urratsak eta helburuak agertuz. Honela jakin dugu, kanpainarako elkarteak eskutitz bat bidali diela Iparraldeko alkate guziei. Eskutitz honek, alkate bakoitza euskararen baloratzeari dagokionez, bere erresponsabilitatearen aurrean ezartzen du. "Gaur, Euskal Herriko herrigizonak zaretelako, zuei buruz gatoz. Eskutitz honen helburua da zuri galdatzea agertzen ditugun eskakizun hauk, zuen gain har ditzazuen".

—Zein dira, euskararen aldeko kanpaina honen eskakizunak?

—Lehenik, euskara irratian eta telebistan. Irratirako, euskarazko emankizunak egun osoan zehar eta telebistarako, egun oroz guttienez ordu erdi bat. Bigarrenik, aita-ama euskaldunak udaletxera datozenean

proposatua izan dakiela euskal izen bat beren haurrentzat (Elkarteak, 500 izenen zerrenda bat bidaltzen dio alkate bakoitzari). Hirugarrenik, Herrien, karriken, denden eta udaltxeen izenak euskaraz. Laugarrenik, euskal kulturari diru laguntza: bereziki gau eskolentzat eta ikastolentzat.

Xarles Bidegainen esanez, eskutitz hori erantzun dutenak oraindik bost dira. Eiherrako alkatea, Mugerrekkoa, Baigorrikoa, Ahetzeko eta Donazarrekkoa. Kopuru hori berehala gehituko zuen 30raino helduz. "Hiri nagusi guzietan eginen ditugu biltzarre informatzaileak kanpaina honetaz, batipat, jendeen sentsibilizatzeko eta posible diren urratsak konkretizatzen. Irrati-Telebistaren arazoari dagokionez, egia da ez dugula informazioaren monopolioa ukitzen, baina hori ez da bakarrik guk egiteko gauza. Goiz edo beranduago, monopolio hori hautsi beharko da euskaltzale guzietan batera". Mosione bat ireki da ere euskarazko irratia telebistaren alde, frantses estatuari bidalia izanena zaiona.

M. L. Uhaitze

oaina bat egiten da



Iparraldean, irmokiago
mantentzen izan da mendeetan
euskararen muga Hegoan baino.
Baina Euskal Telebista-irratirik
gabe, euskarazko irakaskuntzarik
gabe, hots, euskararen ofizialtasu-
nik gabe deus gutti konpon dai-
teke.



CGV eta ETA

Politikaren mundua oso gauza iluna omen da. Segur asko, horregatik ez dut ongi ulertzen. Eta nik bezala, beste askok ere ez dute ulertzen.

Adibide bat. Nik uste nuenez, duela urte eta erdi —ekainaren hamabost famatu hartan— sorturiko Gorteak, disolbiturik geratu dira, deusezturik; hau da, baliorik gabe. Desegite horren kausa, nolabait esateko, indar-erlazioen aldaketa izan daiteke, Suarez jaun habil eta azeriaren jokoak gorabehera. Azken kausa zein den ez dakit, erraz pentsatzekoa bada ere.

Gorteak disolbitzean, orduko hauteskunderen emaitzen seme edo alaba edo... den CGV famatua ere, automatikoki disolbiturik geratuko zela uste nuen. Baina, bai zera! Erakunde honek bizirik eta osorik dirau, antza denez, gurasoen heriotzea gaindituz. Eta ez hori soilik. Ostera, indarberritu egin dela dirudi, zeren eta ongi probetxatu baitu momentua, inoiz baino ozenkien talde baten kontra hitz egiteko. Noren kontra, ordea? ETA militarren "terrorismo kriminalaren" kontra (izen-adjetiboak ez dira nireak noski).

Ba genekien, jakin, bi erakunde hauen arteko erlazioak azukrea baino pixka bat garratzagoak zirela (agian orain limoia bera ere goxoegi gertatuko da). Eta zer lortu nahi izan dute CGV-koek? Hainbeste bider

aipatu den ETA Herriagandik baztertze eta zokoratze hori? Eta ETAk Herrian —edo Herriaren parte batetan— duen sostengu morala benetakoa bada, zergatik ez gauzak diren bezala onartu? Azken batez, Herri hori oso kontzientziaturik badago —eta horrela dagoela uste dut—, ez da deskontzientziaturiko CGV bezalako erakundeen kondenagatik. Beraz, modu horretan alferrik dabiltzala uste dut.

Hala ere, esandakoaz aparte, intuizioak diost, beste hankasartzeren bat ere egin dutela. Beharbada, baten batek kointzidentzia hutsa izan daitekeela esan dezake, baina susmo txarra hartzeko modukoa da. Kasualitate hutsa ote da, Madrilera Cruz Cuesta jaunarena lehen batez ETArri leporatzea, eta CGVren deklarazioa berehala etortzea? A zer nolako hestutasuna, kontu hori GRAPOk egin izan dela enteratu direnean! Noski, ez dute arazoa berriro aipatu nahi, susmo hori ager ez dadin. Ba dakigu: Kakari zenbat eta gehiago eragin, kakats handiagoa...

Ba da, aipatu nahi dudana beste puntu bat ere bai. CGVren erabaki horrek nolabait harriturik utzi nau. Ahobatez hartua izan da. Ez dakit abstentziorik egon ote den. Nola uler, ETakoak defenditzen ibili direnek, orain hain gogorki kondenatzea?

Ramon Garai



EGYPTO GREZIA ETA ISRAEL

Lankide
Aurrezki kutxarekin

Lankide aurrezkiak 160 aurreztaile gonbidatzen ditu, Mediterraneoan zehar bidaiara egitera, Egipto, Grezia eta Israel bisitatuz.

GURE edozein BULEGOTAN, 1979 ko Urtarrilaren 2tik aurrera, aurrezki eragiketarako egiten dituzten guztiak parte har dezakete zozketan.

1.000 pezetako ezarpen bakoitzeko, zozketa txartel bat hartzeko eskubidea daukazu, eta, gainera, lehen ezarpen hori egiterakoan, zenezukakeen 10.000 pezetako saldo bakoitzeko beste txartel bana hartzeko eskubidea duzu.

Bidaia honetarako ateratako txartel bakoitzak pertsona birentzat balio izanen du.



1979: Lankide Aurrezkiaren itsas bidaiaren urtea.

Beste ekologia

Iraultza berdea aurrera doa. Bizitzeko dugun planeta osoa eta bakoitzaren eremu nazionala gehiegikeria irrazionaletatik salbatzeko erantzunkizuna gero eta sentituagoa da, ingurugiroaren salbazioa, azken buruan, gure salbaziga bera baita. Artikulu, hitzaldi eta eranskailuek geure natura gero eta degradatuagoaren kontzientzia sorterazi digute. Zentral nuklearren arazoa, noski, gaur egun larriena dugu, baina hortxe dago, berriki aipatua gainera, ur kutsatua problema ikaragarria, fabrika eta automobilen satsadura, janariak kontserbatzeko erabiltzen diren kimika gaien arriskua, tabakoarena, plastiko hondakinenak, pinuek gure lurrari dakarzkieten ondorio kaltegarriak eta abar luzeak.



Batzu, sentikorrenak nonbait, hitzez asperturik, ekintzara ere pasatu zaizkigu. Horrela ulertu behar dira, noski, Irrintzi komandoaren pinade erretzeak, mendiko alderdi ederrenetan jarritako publizitateko kartelen puskaketa, etab. Gehiegikeriak dira hauk, beharbada ez, agian, justifikagarriak, baina erabat ulergarriak, aurreko beste gehiegikariak ikusita. Izan ere, laborantzarako ezin egokiagoak gertatzen diren lur lauak, zelai ederrak, beraien eta ondoko soroen kalterako, pinuz landaturik ikusteak amorrua ez beste sorlerazten du. Gaurkoen probetxuagatik gerokoen etorkizuna hondatzen dihardutenek, horrela, ezin diezaiokete besteri eska, beraien errespetatzen ez dakitena errespetatzeko. Eta gaur probetxu pribatua besterik ez dakusan baserritar itsuak baino erantzunkizun haundiagoa dute, jakina, atzorarte guztienak ziren herri-basoak, foruak kenduta, pribatizatzen utzi duten legegileek.

12. hor.

Gehiegikeria horiek, ordainez, kontrako beste gehiegikeria berriok dakartzate orain, oreka erdian edo topatu arte. Ba du, bain, zer egin, zer galeraz eta zer antola etorkizuneko euskal gobernuak ekologiaren eta natur baliabideen erabiltze arloan.

HIZKUNTZ EKOLOGIA

Ingurua bere lehengo egoeran gordetzeko ahaleginetan, ordea, ba dago beste arazo bat, hizkuntzarena, maiz, gainera, naturarenaz batera datorrena.

Etxe, txalet- eta fabrikagintza aurrekoan doan neurrian, noski, geure natur arloa urritzen ari zaigu. Zalantzarik gabe, eta puntu batetaraino, berau bizitzak berak dakarren bilakaera da eta horrela hirigintza, baserri-basoei toki kentzen badie ere, ez da berez txarra, hirigintza hori zentzuz eta gizonaren egiazko premiei egokiturik eraikitzen bada behintzat. Bardeguneak, parkeak

eta natur giroko tokiak beharrezkoak dira agiazko giza hirigintzan, hitz honekic krankismopeko urteelan, zoritxarrez, interes pribatuen onerako eraikuntza munstro eta desgiztua estali bada ere. Honen eredurik argien eta beldurgarrienak Bizkai-Gipuzkoetako industri hiriak dira, behiala eder eta gaur txerrikorta nazkagarri bilakatuak.

Des-hirigintza basati honen aurrerakadaz erdalduntze systematikoa ere sartu zaigu. Lehen euskal izen eta izate jator bana zuten kale asko, agintari eta burokrata faxisten erabakiz, inolako tradizioz gabeko erdal izenez birbatatu ziren, arkitekturazkoaz batera hizkuntz kolonizazio nabaria eginez. Calle de Cale oquerra, Avenida del Generalísimo, Plaza de Jose Antonio (lehendakariareca ez, jakina, Primoaren baizik), Calle Almería, Travesía de Extremadura... zenbat eta zenbat holako gure geographian!

KOLONIALISMOAREN SEINALEAK KENTZEN

Zorionez, honen kontra gero eta boz ozenagoak entzuten ari dira. Aipagarrienetakoa, ene ustez, Urretxukoa dugu, hor Plaza del Generalísimo, orain lehenagoko Gernikako Arbolaren Plaza bihurtu baitute. Eta kasu hori ez da bakarra, ez eta kasualitatezkoa ere. Herri kolonizatu guztien lehenbizikoierantzutea, askatu bezain laster, horixe izaten baita, hain zuzen. Herri eta kaleen izen arrotzak beren jatorrizko hizkuntzan birjartzea edo moldatzea. Holaxe egin dute Belgikan, Txekoslovakian, Jugoslavian, Hungarian, Errumanian, Grezian, Georgian, Ceilan-en (gaur Sri Lanka!) eta Afrikako nazio askatu guztietan. Nor gogoratzen da orain Leopoldville eta Elisabethville haiez? Gaur Kinshasa eta Lumumbashi izenez ezagutzen ditu mundu guztiak, baina gogoan daukat nola espainol kazetek afrikarren jokabide anticolonialista hori kritikatu zuten, hain izen zibilizatu eta "jator" aldatzea barbarokeria zela esanez!!!


Aspaldion, bestalde, Taiwan lekua kentzen ari zaio Formosari. Bide beretik doa, noski, Zimbabwe, Rhodesia zokoratuz.

GUK ERE EGIN BEHARREKO KANPAINA

Gure artean —eta Euskaltzaindiak berak bidea eskaintzen digu herri eta herritarren izendegiaz!— ordua ere heldua da Euskal Herriko izen jatorrak, euskal ortographia soilaz eta era bakarraz agertzeko. Lequeitio, Vergara, Leiza, Guernica, Elanchove eta Renteria-k, egoera koloniar baten simbolo diren aldetik, ofizialki desagertu eta Lekeitio, Bergara, Leitza, Gernika, Elantxobe eta Errenteria moduko formei utzi behar diete tokia, ez baitugu uste arrazoirik dagoenik, inperialismo zaharra gordezko asmoz ez bada, euskal izenak espainol ortographiaz idazten segitzeko. Bide honetan aurrera goazen neurrian geure birnazonalkuntzan ere aurreratuko gara. Bata, horrela, bestearen termometroa gertatuko zaigu. Eta egia honez ongi konturaturik daude Arabako diputazioko funtzionari gaztelau frankistak, euskal herrialde horretako bide seinaleak euskaraz ondo jartzen hasi bezain agudo, protestaka zeru-ifernuak nahasi baitituzte, beren lehengo inperialaren oinharriak dardar ikusita.

Complejo Residencial LAS ACACIAS (NEGURI) Para personas que saben valorar los detalles

VISITE PISO
PILOTO



En la finca Az Club Jolaseta, cabo la construcción de viviendas residenciales con características idóneas para el Vd., saben valorar los detalles. La mínima ocupación en planta baja total, permite el uso de parte del mismo para el comercio. La perfecta distribución y acabado, con un toque auténtico de lujo, incluye chimenea, fr. abebay, bañ. mármol, fr. de...

ETXEGILE ERDALTZALEEN JOKABIDEA SALATU BEHARRA

Ba da, azkenik, beste puntu beltz bat, ene ustez ukitu beharrekoa: Etxegile erdaltzaleen portaera. Jaun dirutan ahalguztidun hauek, behialako aitabitxi faxisten ametzez edo, jo eta ke dihardute oraindik, Bilbo inguruan bereziki, gure Euskal Herria erdalduntzen. Berauei zor diegu, esaterako, toponimia osoa euskaraz dagoen tokian eta jendea euskaraz mintzo den lekuan, Urbanización Las Acacias, Zona Residencial Los Pinos (originala bezain simptomatikoa benetan!), Grupo Antiguo Golf, El Abanico de Plencia, Bella Vista, Solimar, etab. etab.

Jokabide zatar hau gogorki salatzeakoa dugu. Pazientziaren ontzia aspaldian gauditua dugu euskaldunok, luzaroago horrelako burlarik pairatzeko. Izan ere —eta herri kulturalki kolonizatu batetan areago— ingurua geure hizkuntzaz jatorri gorde nahi izatea guttienezko kultur ekologiak eskatzen duena da.

'Eta gaur, kaleko jendea euskara berreskuratzen ari denean, eta hiritarrak herri eta hauzategien izen jatorraz (Indautxu ala Indautzu, Otxarkoaga, Santutxu...) kezkatuak daudenean, izen berriak erdaraz asmatzen ibiltzea probokazio antiherriar edo hilargian bizitzea beste-rik ez da.

Xabier Kintana



Frantziako gobernuak ETA defendatzen du

Bartzelonako egunkari batek, hau da, "Diario de Barcelona", oso editoriale harrigarria zekarren urtarrilaren 14ko alean.

Editoriale horretan garbi esaten da, Frantziako gobernuak eta ETAk, konplizitateak eta entendimenduak dituztela elkarrekin.

Harrigarri baldin bada ere, hori jartzen du: Frantziako gobernuak, ETA defendatzen duela, edo gutxienez, errespetatzen duela.

Errespetu horren truk, suposizio hau egiten du Bartzelonako egunkariak: ETAk ez duela Ipar Euskadin ekintzarik egiten.

Oraindik bada mundu honetan "inorante supino"-rik!

Eta esaten dudan gauza frogatzeko hona hemen, hitzez hitz, editoriale horren zatitxo bat:

"La pasividad con que el país vecino ha contemplado la sangría española hoy, invita a concebir sospechas acerca de posibles entendimientos subterráneos entre el gobierno francés y ETA..."

Hori da imajinazio izatea!



Aita Sainduarentzat tenis pista bat egiten ari dira

Tenis pista bat egiten ari dira, Erroman, Aita Sainduarentzat. Zehazkiago esateko, Erromatik 30 kilometrotara dagoen jauregian ari dira tenis pista egiten Juan Paulo II-arentzat.

Aita Sainduak, Castelgandolfon duen jauregian pasatzen ditu udak, eta kirolak praktikatzeko egin behar diote pista hori.

Baina problema txiki batzuz sortu dira proiektuarekin, zeren eta desestalia (estali gabea) nahi baitzuen berak, eta kardenalak "biziki ikaratu" egin dira ideia horrekin.

Pentsa ezazue! Fotolari batek argazki bat ateraten baldin badio galtza motzetan... zer nolako desastrea Vatikanon!

Dirudenez, tenis pista estali horretan, Juan Paulo II-k jesuita batekin egingo ditu jokoak. Jesuita hau Aita Tucci da, Vatikanoko Irratiko zuzendaria.

Eliza Katolikako jerarkiak ere praktikatu behar baitu kirola!



Euskadiko Elizak sortu zuen polemika.

Ondoko komiki hau "Mundo diario" egunkaritik hartu dut. Bertan, Euskadiko Elizak sortu zuen polemika aipatzen da: biolentziaren kontra atera zuen komunikatuaren asuntua da.



Hiru "Concorde" salgai daude


Hiru "Concorde" hegazkin salgai daude. Bat Toulousen eta beste biak Ingalaterran aurkitzen dira.

Oraindik ez da eroslerik presentatu, eta hortxe daude hiru hegazkin supertsoniko hauk. Frantziako eta Ingalaterrako gobernuek ez dakite zer egin horiekin.

Orain betetzen da 15. urtea, "Concorde" hegazkina egin zutela, eta martxa txarra darama.

Gainera, funtzionatzen ari diren beste hegazkin supertsonikoek zorrak besterik ez dituzte egiten.

"Concorde" baten prezioa zenbat den ez dakit, baina ez naiz oso oker ibiliko, milaka milioi pezeta balio duela esaten baldin badut.



Teatro eskola bat egingo da Iruñean

Hemendik hilabete gutxitara, Iruñean teatro berri bat eraikiko da. Autobusetako geltokian egongo da, eta 450 pertsonarentzat izango du kabida.

Eta areto berriarekin batera, teatro eskola bat ere sortuko da. Honen izena, segur aski, "teatro egonkorra" (teatro estable) izango da.

Oraindik baimen ofizialak falta dira, baina Iruñeko udalak, jadanik, eman du bere baimena.

Projektuak oso aurreraturik daude, eta apirilerako irerki dadin espero da.

Teatro eskola honetan, noski, erdaraz emango dira klaseak. Nolabait esateko, "Lebrél Blanco" taldearen jarraipena izango da.

Eta teatro kontutan ari garenez, tristeza baldin bada ere, oraindik Iruñean ez dugu euskal teatro talderik. Orain dela hiru urte proiektu bat izan zen, baina azkenean porrot egin zuen.

Ea noiz egingen den Iruñean euskal teatro talde bat!



CONESA BILBORA

Estatu honetan dauden komisari famatuetan, ezagunenatariko den Conesa, ETAREN problemaz espezialista dena, Bilbora etorri zaigu M. Villaren kausarekin bat egiteko.

Ez da, ordea, bera bakarrik etorri dena. Berarekin Brigada Antiterroristako beste hirurogei profesional iritsi dira, komisari buruzagiaren menpean lan egiteko.

Especialista hauk, seguru asko, ez dira, suposa daitekeenagatik, uniformeaz jantzirik ibiliko. Eta beren lana "terrorearen" iturburuak izan daitezkeen giro eta pertsonengana zuzenduko dute.

"BAI EUSKARARI" KANPAINAREN ONDORIOAK

Euskaltzaindiaren faborez eraturiko "Bai Euskarari" kanpainak fruitu galanta eman dio, gure hizkuntza zaintzeko ardura duen erakunde horri. Bildu den dirua guztitara, 41.230.000 dela azaldu berri digu gure Akademiak. Zorionak honegatik Euskaltzaindiari eta Euskal Herri osoari.

Urte honetarako, bere lan arruntak betetzeko egin duten presopostua 30.700.000 pezetatakoa da, beraz, hor joanen zaio gure akademiari kanpainan zehar bildutako dirurik gehiena. Eta datorren urtean zer? Espero dezagun aurrerantzean, Euskaltzaindiak izango duela, bere egunkizunetarako beharrezko duen diru guztia, kanpaina berririk antolatzeko premiarik gabe. Espero dezagun, behin eta betiko, euskaldunok ordaintzen ditugun zergen diruaz, mantendua izanen dela gure Akademiak.

FEMINISTAK, TERRO- RISTAK?

M.^a Angeles Villarrekin abortu batez bizitza galdu ondoren, Bizkaiko Emakumeen Asanbladak manifestazio bat konbokatzen du abortuaren eskubidearen alde, urtarrilaren 14erako, Bilbon.

Egun hartan egin ziren manifestazio guztien moduan (Lemoizeko zentralaren kontrakoa, Amnistiaren batzordeena), hau ere gogorki erreprimetua izan zen. Bertan, pilotak, kolpeak, kargak eta detenituak izan ziren.

Nik ez dakit nola justifikatuko duen Bizkaiko gobernadoreak bere mutilen portara hori, guri, behintzat, ulertzea asko kostatzen zaigu. Agian, feminista horik terroristatzat jotzen dituzte, edo bestela, izan liteke, abortuaren eskubidea eskatzea, M. Villaren 15 puntuetariko batean sarturik egotea, nik ez dakit, baina, hain sekretuak direnez gero...

POLIZIA NAZIONALA (sic) ETA PETARDOAK

Hainbeste denbora polizia autoktonoa eskatzen eta hara non, bat-batean, "polizia nazionala jartzen diguten! Zer esanik ez, "nazional" adjektiboa era askotara uler daiteke. "Nazio" hitza bera ere batzuk eta bestek modu oso desberdinean ulertzen dute (dugu). "Unidad de destino en lo universal" delakotik euskal nazio kontzeptura, alde makala dago gero! Baina, hemendik aurrera, "Guardia Civil" eta "Policia Armada" direlakoek "polizia nazionala" osotzen badute, Jainkoak anpara gaitzala "nazio" horretan!

Dena den, txakurrari idunekoa (edo izena) aldatu arren txakur izaten iraungo du, eta bai kolore marroira aldatu arren ere.

Edozertara ere, Espainiako polizia urduri dabil. Hain urduri, ezen leherketek eta leherketa-hotsez obsesionaturik daudela. Eta petardoak —bromatakoa, noski— erabiltzea debekatu dute, edo bestela esanik, ez erabiltzea gomendatu dute. Ba dakizue, ba, gaztetxoak! Petardoekin kontuz ibil, polizia nazionala asalda ez dadin. Bestela zuek pun eta besteek pan egitea gerta daitezke.

Egia esan, ni neu beti izan naiz petardoaren aurkakoa. Bilbo inguruan, ordea, ohitura handia dago, Gabon jailetan horrelakoak piloka leher erazteko. Ez dakit, ohitura hori nondik datorren, ez eta leherketari zer plazer eta atsegin ateratzen dioten. Hala ere, kaltegarri deritzot ohitura horri, zeren eta adi ez dagoen jendea —eta batez ere haurrak— ikaratan jartzen baita, sortzen den zararekin. Eta elkarrenganako errespetu minimoagatik, ohitura horren kontra joan beharko litzatekeela uste dut. Baina petardoak debekatzea, polizia nazionalaren urduritasuna aitzakitzat jartzea... Tira, tira!

R. G.



ERREFUXIATURIK EZ!

Urtarrilaren 12an Oregia jaunak (Marcelino, seina gehiagorako) Parisera joan zen Frantziako ministroarekin hitz egitera. Hitzek behintzat, akordio batetara heldu dira: "Espainian ino ez da gartzelaratzen bere ideia politikoengatik. Beraz, ez da zertan politikagatik ihes egin beharrik, hots, ez dago herbestera politikorik. Ondorioa: Ipar Euskal Herrian dauden errefuxiatu politiko euskaldunak, kanpora bidali behar dira Frantziako estatutik".

"Oui, monsieur! Très bien." Hauxe erantzun diote gutti gorabehera. Eta bihar-munean bertan, Peixotorena. Hor ez dago burokrazia problemarik. A! Baina horregatik lasai geratuko dira Frantziako demokratak.

R. G.



ANAITASUNAKO AFA- RIA


Ez da dena serio Euskal Prentsaren barruan. Hala bada aldatu beharko da apurka; berehala aldatzeko kondiziorik ez egonez. Zoriturra.

Iheazko bukaeran Anaitasunak antolatu afari batetan ikus dezakezue nolako alai portatzen ziren gure idazleak. Knör, Txilardegi, Torrealday eta beste hainbeste oso seriotzat hartzen ditugun pertsona famatu horiek barre egiten ba zekitela erakutsi zuten. Oso ongi.

Ea hemendik aurrera, Anaitasunako horrialdeotan adierazten den premiazko alaitasun hau. Euskal Herri honek merezi eta behar du benetan.

ENKARTAZIOAK EUS- KALDUNDU BEHA- RREAN

Euskara aspaldian galdu zuen Bizkaiko eskualde honek ere, euskaldun izateko eskubide eta nahia aldarrikatu digu, urtarrilaren 14ean, igandez Urreztietan eginiko manifestazioan. Euskararen etorkizunaz kezkatu dagoen hainbatentzat, esperantzagarririk gertatzen da berau. Euskara errekuperatu beharrean dauden eskualdeak, ordea, asko dira. Hor dugu Arabaren egoera, non ia dena egiteko baitaukagu, Nafarroa eta Euskal Herriko Hiribururik handienaren kasua, Bilbo. Euskal Herriaren euskaldunak % 23 besterik ez gara, hala ere, egunero euskaraz, erdaraz baino gehiago berba egiteko aukera daukagunok. askoz guttiago gara. Eta gure hizkuntzaz irakurri eta idazteko gauza garenok askoz guttiago; % 5 bat edo.



Beraz, Euskal Herria euskalduna lortzeko ez dago oraindik triunfalismoetan aritzeko atxakia handirik. Gure nazio osoa euskaldun bilakatzeko, ba dago lana sendo, horretaz arduratu behar duten erakundeentzat. Inportanteena bideak izanen dira, euskarazko irakaskuntza euskaldunontzat eta euskara irakastekoa oraindik euskaldun ez direnentzat. Behar beharrezkoa izanen dugu euskal Irrati Telebista bat, baina ez hiruzpalau orduz bakarrik euskaraz emanen duena egunero, ez, euskara hutsezkoa behar dugu. Beharrezkoa izanen ditugu bestelako euskal komunikabideak ere. Bide hauk eskuratzen ez baldin baditugu, gure ikastolek, alfabetatzeek, gau eskolek eta euskalduntze lanen deus gutti egin ahal izango dute.

Euskararen defentsa eta aurrerabideratzea dagokion erakunde politikoak ba du, beraz, zereginik franko. Eta puntu hauen kontra azaltzen diren alderdiak, eta batzu azalduko direlako segurantzia dut, argi eta garbi euskararen kontra jokatzeko ari dira, orain arte pairatzen dugun zapalkuntza inperialista iraunaraziz.

BERTSOLARI TXAPEL- KETA

Datorren martxoaren 4an, Zaldibin, bertsolari txapelketa bat ospatuko da, Nikolas Mendizabal, Zaharraren omenezko kultur astearren barruan. Ondoren, laburkiro ematen ditugu txapelketaren kondizio edo baldintza orokor edo jeneralak:

1. Txapelketaren izen edo titulua: "I. PATXI ERROTA SARIA / II. AR-TXANBERRI SARIA", izango da.

2. Txapelketa honetan 28 urtetik beherakoak har dezake parte; hau da, 1978. abenduaren 31a baino geroago betetzen dituenak. Beste era bate-tara esanda, 1950an jaiotako eta handik atzerakoak, noski.

3. Txapelketa hau bi saio edo ekinalditan jokatuko da; goiz partetik aurrenekoa eta arratsaldez bigarrena. Goizetik, partaide guzietatik kantatuko dute, eta arratsaldez, goizean ongien iharduten duten *seirek*.

4. Ez da txapelduna eta bigarrena besterik izendatuko. Halere beste bi sari izango dira; bat, lau gazteenetan ondoen egiten duenarentzat eta beste eguneko bertsolari onenarentzat.

5. Lau gazteenetan onena txapeldun edo bigarren aterako balitz, haren saria hurrengoari emango zaio. Lau gazteenetan onenarentzat dagoen saria, alegia.

6. Bertso epaiketa bi eratara egingo da: % 50 herriak edo entzuleak emandako eritziak balioko du, beste % 50ekoa, horretarako jarriko den epaimahiaren esku gelditzen delarik. Bi puntuazio klase desberdin hauk nola lotu, uztartu eta

koordinatu pentsatua dauka jadanik antolatzaileak, baina horren berri bere garaian emango zaio bertsolari bakoitza eta entzuleari. Halere, bertsolari onena saritzea mahaiaren esku gelditzen da erabat.

7. Gaiak, nahi duten zaldibitar guzietatik aukeratuko dira. Horretarako bere garaian dei egingo zaio herri osoari.

8. Txapelketa Euskal Herri osoaren mailan egiten da eta bigarren klausulako kondizioak betetzen dituen edozein euskaldunek har dezake parte.


9. Sariak honako hauk izango dira: Lehenengoa txapela eta kopa; bigarrena kopa; lau gazteenetan onenarentzat kopa; eguneko bertsolari onenarentzat beste kopa bat. Goizean bakarrik jarduten direnei hiruna mila pezeta, bazkaria eta bideko gastuak. Arratsaldean ere ari beharko dutenei, aipatutako sariz gainera, bosna mila pezeta, bazkaria eta bidaia gastuak.

10. Aurreko klausula hauetan jasotzen ez den beste edozein gorabehera antolatzaileen esku gelditzen da. Baita arautegi honen edozein aldaketa ere.

Izenak emateko epea otsailaren 10ean amaitzen da. Eta hori egin daiten, kartaz, honako zuzenbide honetara bidalitz: Guraso Elkarte, Biok Bat, Zaldibia; parentesi artean (Bertsolari Txapelketa) jarri. Edo eta 88 43 53 telefonora deituz, iluntzeko 7etatik gaueko 10ak bitarte.

*Antolatzaileen izenean,
Rufino Iraolak*





Algeriaren iragana eta etorkizuna

Asko hitz egin da azken hilabeteetan Algeriaz, eta ba dago horretarako arrazoirik franko: Bumedian lehendakaria gaixotu zèn momentuan, oso txarto ikusten zen herrialde horretako irteera, lehendakariaren heriotza itxaroten ez zenez gero, ez baitzegoen ezer pentsaturik etorkizunerako.

Egia da oraindik ez dagoela ezer argi, baina, hala ere, denbora luzetxoa iragan denez gero, dauden posibilitateak askoz errazago soma daitezke.

Baina etorkizunak algeriarrei ekar diezaikeenaz pentsatzeko, ondo lagoke Herrialde honek, Independentziaz hona, eduki dituen gorabeheri gainbegirada bat ematea:

NAZIO ARTEKOA

Frantses kolonialisten kontrako gerra amaitu ondoren, 1962. urtean lortu zuten independentzia, eta autodeterminazio-erreferendum baten ostean, gobernu zibil eta probisional bat eraikiko zen, zeina laster Ben Bella militar aurrerazaleak kenduko baitzuen, berak boterea hartuz. Gizon hori nahiko jatorra izan arren, ezin izan zuen gauza handiegirik lortu, eta hau arrazoi bategatik:

Estatuko aparatuan, goi mailetan, burruka asko zeuden eta honek desoreka handia ekartzen zuen.

Hala ere, momentu berean, oso animaturik zegoen baseko jendea, eta adibidez, kolonialistek utzitako enpresa askotan, langile-komiteak eratu ziren, gestioa aurrera eramateko.

Baina burruken erruz, gobernu honek ez zuen indarririk hartu eta 1965. urtean, gobernuko defentsarako ministroa zena, eta Harmadan aginterik handiena zuen gizona, Bumedian halegia, boterera igon zen,

kolpe baten bidez, eskuinak kolpe hau bultzatu zuelarik.

Bumedianek lortu nahi zuena zera zen:

- Ordenu soziala eta gobernu indartsu bat iristea.
- Argelia industrializatzea.
- Indar desberdinen arteko ekilibrioa lortzea.

Kolpea eman zenean, errepresio handia egon zen: baseko organizazio gehienak deseginda geratu ziren, jende xehearen desmobilizazioa izugarria izan zen ordutik aurrera, eta orduantxe, FLNeko elementu aurrerazale askok, zegoen alderdi bakarra utzi zuten.

Hala ere, 1965. urtetik aurrera, alde positiboak ere agertu dira, hala nola, egin diren nazionalizazioak, batez ere 1971. urtetik aurrera; industriak hartu duen indarra; lurren banakuntza; boterearen oreka, etab. Batez ere, lurren banakuntza horrek garrantzi handia eduki du, eta guztiz egin ez bada, azpiegitura egokia ez

zelako, eta lehengo jabe asko Nekariztako ministerioan infiltratu zirelako, izan da. Hala ere, lur asko nekazarien eskuetara pasatu dira, enpresa asko, batez ere handiak, nazionalizaturik daude, estatu-sektore inportantea osatuta dagoelarik, eta zenbait lantegitan, langileen "gestioa" aurki daiteke.

Baina politika mailan, nahiz eta konstituzioa elaboraturik zeukaten, ez zegoen kalkulaturik Bumedian hain goiz desagertu ahal zenik, eta beraz, denak geratu dira harrিতuta erabakitzeko momentua heldu zaienean.

Konstituzioak dioena zera da, FLNk (hau da, alderdi bakarrak), batzarre bat egin ondoren, lehendakartzarako kandidatu bat aurkeztu behar duela. Jende independentea ere, bere kabuz, presenta daiteke, baina argi dago ez zutela horiek edukiko inolako posibilitaterik.

Kandidatua bakarra izango denez gero, burruka handiak daude orain Algerian, ea zein tendentziatakoa



den jakiteko. Honelatan, jendea oso beldur da eskumarako biraia bat ez ote den emango, eta horrexegatik egin dira zenbait manifestazio egunotan, herria lotan ez dagoela adierazteko.

Denek esaten dute ez dela posible izango, orain arte eraman den linea aldatzea, gutxienez hitzez, Egipton gertatu zenaren beldurra dago: hitzak berdinak izanik, benetako politika, ekonomian, nekazaritzan, industrian, etab., eskuinerantz joatearena, halagia.

FLNak urtarrilaren amaieran egin behar du bere kongresua, eta han bi posibilitate, gutxienez, ikusten dira orain, batzarrea hasi baino lehen:

— Yahayaoni lehendakaria bada, aurreko moduan segituko dute gauzek, bera nahiko aurrerazale dela baitirudi.

— Bouteflika balitz, hau da, haramadaren talderik atzerakoenak bere nahia betearazten badu, eskumarranzko desbidazioa erraza izango litzateke.

Beste irtenbiderik ez da ikusten, FLNtik kanpo dagoen ezkerria organizatu gabe baitago, eta beraz, egin ahal duen gehiena zera da, orain presioa egitea ahal den onena atera dadin.

Dena den, laster jakingo dugu, ea Argeliak aurrera edo atzera egin duen orain arte lortu dituen aldakuntzetan.

Emakumeek emakumeak maite



Orain dela hiru hilabete, Valenciako "Little-Kiss" entresan, bi neska bota zituzten. Behin baino gehiagotan harrapatu omen ziluzten besotik hartuta atsedendian eta baita esan ere hori añ zela morala. Azkeneko aldiz, entresaren lorategian ikusi zituzten, batak bere burua bestearen sorbaldan eusten zuelarik! Ea jarrera horretan zer egiten zuten galdetu zietenean, neskek, lesbianak zirela eta elkar maite zutela erantzun zieten. Horregatik bota zituzten entresatik.

Neska hauen moraltasun eza ezin zuten onartu gizon hauek, beren sentibilitatea mindu egiten zuten neska hauen goxotasunek.

Baina maitasunaren defentsa hau ez zen laguntzarik gabe gelditu. Berria jakin bezain laixter, emakumeen mugimenduak bere elkartasuna oihukatu zuen eta emakumeek emakumeak maitatzeko dugun eskubidea aldarrikatu ere bai.

EHGAM-AN BORROKA

Euskal Herrian, nahiz eta oraindik ahula izan, ba dugu GAY mugimendu bat, Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua hain zuzen ere. Zeregina ba

dute, zabala eta zaila, baina metodoa da problema. Valenciako gertaera honen ondoren Bilboko eta Donostiako EHGAM-en lan egiten duten lagun batzuekin egon ginen hizketan. Han agertu zizkiguten beren borroka eramateko aurkitzen duten hainbat oztopo.

Alde batetik, gaur egun praktika homosexual bat eramaten duenak, gehienetan errutasun sentimendu bat dauka barnean eta bere burua ez du oso ondo kontsideratzen. Honek segurtasun falta bat dakar eta gainera, homosexual biza doble bat eramatera behartzen du. Honek, borroka bat eramateko orduan, nabari diren oztopoak ekartzen ditu, nor azalduko da publikoki homosexual bezala? nork hitzegingo du EHGAM-en izenean?

Pixkanaka pixkanaka irabazten ari garela ere garbi dago, beren GAYtasuna guztion aurrean azaltzen dutenak gero eta gehiago dira eta. Bilbon, urrats hau ematen ari direnak asko dira. Donostian zailagoa da, maila batzuetan, hiri bat baino gehiago herri bat delako, batez ere pertsonen jarrera bereziari dagokionean.

Joan den urrian, Bilbon trabesti batzu harrapatu zituztenean, mobilizapen zabalak izan ziren errepresio honen kontra, EHGAM-en deiari erantzuna



dituztenean

emanez. Hiuek eta Bandres-ekieman zuen laguntzak ere, lortu zuten trabesti hauen askatasuna.

Valenciako neska hauen jarreraiere defendatu du EHGAM-ek emakumeen mugimenduarekin batera, baina ba dirudi emakumeek ez dutela erakunde hone-tan oso gogor parte hartzen. Ba dira emakumeak EHGAM-en eta beste herrietako GAY mugimenduetan ere, baina dirudenez, lesbianek nahiago dute erakunde eta mugimendu feministetan lan egin.

Bilboko EHGAMekoek oso interesgarritzat jo dute bestalde, Valenciakoari buruz erakunde langileek egin duten salaketa publikoa, oso beharrezkoa ikusten baitute langileek GAY erreibindikapenak bereak egitea.

'Oraindik, "Ley de Peligrosidad Social" hori, hor dago. Borrokari ekiteko, zein metodo erabili? Batzuk diotenez, txartelak, manifestapenak, etab. ez dira hoberenak, baina hobegorik aurkitzen ez duen bitartean, hauk eraman behar aurrera. Eta noiz behinka, egun hauetan Donostian egin diren topaketetan bezala, barrura begiratu. Estatuko GAY erakundeak beren problemak aztertzeke eta ekintzak koordinatzeko, batu egin dira topaketa hauetan. Ondorioak, gero ikusiko ditugu.

EUSKAL HERRIKO MATXISMOA

Gure herrian, ieta historiaren ondorioa dslarik, indarkeria da jabe. Gure kirolak, indarraren morroi; gure heroiak, indartsuak; gure gudariak, gure mutilak, gure gudarien amak eta gure mutilen kantinerak. Berlsolarien samina errepresio sexualaren adierazpide eta sentsualitatea ez dugu ezagutzen.

Goxotasuna berdín ahultasuna; ez da egokia gudari batentzat. Maitasuna, etxe barruan derrigorrezkoa, etxetik kanpo, debekatua.

Neska liberatua, berdín gizonen baloreak hartzen dituena, berdín gizonaren desirak betetzen duena.

Giro honetan, EHGAM-ek "Gizon, aska ezazu zure ematasuna..." esaten duenean, ez du garaipen handirik lortzen noski...



EMAKUMEAK MAITE DITUZTEN EMAKUMEOI

Besotik hartuta ikusten zaituztet eta gustatzen zait. Elkarri ematen dizkiozuten mosuek samurtu egiten naute eta zera pentsarazten didate: zuek AMODIOA egiten duzue, ez duzue larrua jotzen, zuen arteko lastanek ez dute eperik, ez dute derrigorrez orgasmoan helburua, berez dute balorea; zuen gorputzen arteko komunikazioa sentimenduz eta seetsualitatez beterik dago. Begirada baten esangura infinitoa da bere goxotauunean. Lurrarekin bat egiten zarete, itsauoan galtzen zarete nahi duzuenean. 'Zuen arteko maitasunari, ez diote kasurik egin 1930. urte arte. Agian hobeto izan da horrela, eta beharbada horregatik ez dute maitasun hau mugatzeko eta zikintzeko astirik izan. Beste gauza bat ikusteko kapaz ez delako zulo baten bila dabilenarentzat, itrauma handia da besteengan maitatzeko eta maitasun hori adierazteko kapazitatea ikustea. Horregatikibota zintuzten lantegitik, horregatik botatzen zaituztete toki guztietatik.

Itziar Urlásun

EHGAMekin kontaktuan egon nahi dutenentzat:

POSTA KUTXAK:

1667 6. erref. BILBO

181

DURANGO

953

DONOSTIA

BANKU KONTUA:

72000061-2

(Lankide Aurrezki Kutxa)

Txomin Artolak bere diskotegia errekupeatu duen WALT WHITMANekin egin zaio eta lan hori euskal musikaren Horregatik, ANAITASUNAK are horregatik eta mendi giroak ukiriko Ondarririk gazte honen nortasuna.



"Ondarribian jaiotakoa naiz, eta itsasoaz, gure herriaz eta euskaraz sakonki maitemindurik nago. Nire ustetan, euskararen galtzea, El Prado-n, Louvre-n edo Art Gallery-n bonba bat jartzea bezala litzateke, edo are gehiago, zeren daukagun erantzukizuna handiagoa baita. Euskara defendatu egin behar dugu, mintzairarik zaharretarikoa baita. Ni gizon arrunt bat naiz, trukorik gabea eta euskara eta Euskal Herria maitatzen duena.

—Orduan, zuk maila pertsonal batean definitzen duzu zeure sentitze politikoa eta egia da, zure obra ez dela politikoa zentzu konbentzional eta zuzen batean. Baina, nire ustez, beste zentzu batean politika da, hau da, konbentzionalismoak hautsi eta alderdi edo ideologiaren eskematan sartzen ez diren elementuak agertzen diren aldetik. Zerbait al dago zure ahotsean, jendeari konfidantza eta hurbiltasunaren

antzeko zerbait sentiarazten diona?

"Nire ahotsa normala da, guztiz arrunta eta nik ez dut uste, zuk "politiko-ekologista" bezala definituko zenukeen estetika bat sortzera iritsi naizenik. Ez naiz kantaria ere. Seguru asko, desfakultate hori daukadalako dateke."

—Agertzen zaizkizun duda profesionalen mailan, non daude segurtasun falta eta etsipena?

"Nire frustrazioa, euskal musikoa herrikoia ttikitatik ez jasotzetik dator. Ezagutzen dudana, kantutegi eta liburuen bidez izan da. Honek min ematen dit, zeren kantu bat osatzerakoan, gehien influentziatzen zaituztenak, zeure herriko tradizio musikalak baldin badira, hori, modu eboluzionatu batez isladatuko da normaliki zure nortasuneari. Lotsatu egiten naiz, neure haurtzarora Beatles, Tom Paxton, Paul Simon edo McCarty-ren musiken

influentziapen pasatu dudala esatean. Eta bestalde, kezkatu egiten nau jakiteak hogeitaz urteren buruan, hurrek orain egiten ari garen musika hau entzuten dutela beronen influentzia jasoz, eta horrela pausoka, oinarrituko dela gure herriaren nortasun berezia."


—Baliu autobiografikorik al du egiten duzun musikak? Esate baterako, "Belar Hostoak" diskoaren bidez, sakonki ezagut zaitzakegu?

"Bai. Diskoan gorabehera desberdinak agertzen dira, eta ene bizitzean ere, depresioak eta mementu optimistak ba dira. Hori, entzulearen sentikortasunaren arauerakoa ere ba da. Diskoak ene izateko moduaren irudi zuzen bat agertzen du. Nahiko lan zintzoa da eta, beraz, nire parte zuzen bat."

—Hogeita hamar urte bete dituen gizon batentzat, zail samarra gerta daiteke, Whitman-ek, baserri bizitzaz

Arekin berbetan

(Mus ANAITASUNA, 373. zenbakia)
len obraren parteari, hainbat kritika
aren goi mailetara iristen ari da.
agotik agertu nahi izan du, itsasoak
ko hogeita hamar urtedun musiko



zituen ideiak praktikara eramatean,
batik bat, bizi garen hipermerkatu eta
maxihamburgesen sasoi honetan...

"Burukatu, gauza guztien kontra
egin behar da, eta bakarrik aurkit-
zen gara. Orduan, nortasun eta
indar handiren jabe ez baldin baza-
ra, eta batez ere, barne bizitze aber-
rats bat ez badaukazu, argi dago,
bizitza sintetikoaren aparatua mar-
txan jartzen duzula. Niretzat, baserri
bizimodua, aberasten nauen bakar-
tasunarekiko enfrontamendu bat
da; aberastu egiten nau, ene buruz
ezagutzen laguntzen naudelako, eta
horrela gizartearengana itzultzean,
horri esker, nire esperientzia eman
diezaioket, berarengandikoa jasot-
zen dudan artean. Baserri bizimodu-
ra itzuli beharrean gaudela uste
dut."

—Barne bizitzeaz mintzo zara. Mis-
tiko bat zara?

"Hori hitz handia duzu. Dena

den, egun osoa pentsatzen ematen
duen pertsona bat naizela esan die-
zazuket, eta maniako depresiboa
naizela, nahiz eta paranoiarik izan
ez."

—Nolakoa da, zure ustez, zure musi-
ka zuzentzen diozun herriaren desa-
rroilo sozial eta nazionala?

"Ez dakit. Beste batzuk erantzun
dezakete hau. Zer nahi duen ba
dakielako bizi den herri bat dela
uste dut. Dena den, krisialdietatik
beti ateratzen da zerbait berri eta
onik."

—Berriz zure diskoaz hitzegiten,
herri honetako mugimendu kultural
batzuk extranjerizaletzaitzat kritikatu
dute Whitman-en poemeta burutu
duzun lana, batez ere, Euskal Herrian
diskografikoki oraindik ezaguturazteko
dagoen poeta asko dela ikusirik.

"Horik, errespetatzen ditudan
eritzi pertsonalak dira. Whitman't-
ek bizitzen lagundu nau. Ni ez naiz

profeta bat, eta ez dut izan nahi.
Baina gustatzen zaidan jaun bat
ezagutzen dut. Kantu batzu osatzen
ditut. Diskoa grabatu eta... eginik
dago. Jendeak bestelako gauza bat
eskatzen badit, nik zintzoki, bestela-
ko gauza hori ezagutzen ez dudala
erantzun dezaket. Dena den, "Belar
Hostoak" diskoan dauden zortzi kan-
tu horik, ezin izan daitezke
Whitman-en definizio bat. Whitman
definitzeko bere obra osoa behar da.
Errepresentagarriak izatea ere ez da
izan ene helburua.

HIRU EPEDUN ISTORIO BAT

—"Olasta" oinarrizko disko bat izan
zen, zuen sentsibilizazio ahalmenaga-
tik, eta orduan genituen premia musi-
kaletara hurbiltzen zen estilo bat ager-
tarazi zigulako. Nola dakusazu gaurre-
gun disko hura?

elkar rikuska

"Zerbait baliogarria izan zela dakusat eta onartu egiten dut. Hala ere, ez nago konforme ondorioaz. Teknikoa da. Nire asmoa, zerbait sakonago egitea zen, lan instrumental handia egin nahi nuen. Gaur hobatzeko gauza nintzateke, baina orduan oso gaztea nintzen eta "txapuzako" zirkunstanzietan grabatu nuen. Agian, urte batzu barru, bertsio berri bat egingo dut."

—HAIZEA, hemen ezezagunak ziren zenbait ideia bota zuen taide bat izan zen. Orain, Txominik gabe, nola dakusazu HAIZEA?

"Nik biziki ona izatea nahi nuke. Horrela lasai geratuko nintzateke, ez bainukeen lagunduko gure panorama musikalean premiazkoa den zerbait desagertzeko. Harremant nago HAIZEAkoekin eta pozik daudela somatu dut grabatokira sartzeko gogo handiz."

—Eta orain "Belar Hostoak". Ezagutu nahi genuke lan honen jatorria.

"Hippien urteetako Whitman-en

ezagumenduz jaio zen ideia. Filo-sofiatzko maisu bat zen. Berarekin identifikatu, eta berehala bururatu zitzaidan haren "Lan Osoak" itzuli eta musikatzeo ideia. Orduan, nire lehen diskoa kaleratu gabe zegoen oraindik. Jendea bilatzen hasi nintzen. HAIZEA agertzen da. Baina ez genuen orduan Whitman-en temarik ukitu, HAIZEAkoekin musika tradizionala desarroilatu nahi nuelako."

—"Belar Hostoak" lanak izan duen gogorrena zer izan da? Whitman-en poemak euskarara egokitzea, konponketa musikalak egitea, ala lan horretan aritu diren musikoei zure ideiarekiko beharrezko konpenetrazioa lortzea?

"Itzulpena problema handia izan zen, poeta hori bere hizkuntzaren bidez expresatzen baita. Halabaina, barregarria litzateke lana ingelesez egitea. Jatorrizko hiru iturri erabili genituen, ingelesa, nahiz eta Whitman-ena ingeles hutsa izan ez, Iparrameriketako argota erabiltzen baitzuen. Ingeles Arkaikoaren alde-

koa zen Whitman. Frantsesezkoa, eta azkenik, gaztelaniazko bertsioa.

Lagundu ninduten musikoekin, lan serio serioa egin genuen. Ba nekien zer zen lortu nahi nuena. Ez nuen Madrilen grabatu nahi, horiek gure nortasuna ez baitute ezagutzen. Iparraldean egin nuen. Errobi Taldeko Ange eta Mitxel Ducaurengan adiskidantza eta konpenetrazioa aurkitu nituen. Beraien posibilitateak koordinatu egin nituen, eta erresultatua, bistan da, entzun nahi duten guztien eskura."

—Eta "Belar Hostoak" honen ondoren?

"Folklorea ikertzen ari naiz. Orain, hogeita bost urtez, ikusmena galdu duen poeta adiskide baten kantuak prestatzen ari naiz. Izugarri sentikorra da bere obra eta, agian, berorri dedikatuko diot nire hurrengo diskoa. Bestalde, bizibide bezala, euskara eta kitarrazko klaseak ematen segitzen dut.

Karlos Arko

Walt Whitman.

WALT WHITMAN, gizona, amerikarra izan zen 1819eneko maiatzaren 31n LONG ISLAND-en —PAUMANOK, bertakoentzat — jaio zenetik, 1892eneko martxoaren 26an hil zen arte. Bere sorlekuaz mintzatzen den poema batean, hauze dio bere bizitzaz:

Jaioa naizeneko Paumanok, bake itxardun iratik irlena,

Gizon oso batek, aia dudana, sorterazia, eta ama on-on batez, hezia,

Herri askotan hara-konaka ibiliz-gero, zoladura jendetsuen maitale,

Manhattan, neure hirien, edo Hegoaldeko larreetan bizi izanik.

Soldadu bat kanpamenduan, neure fusila lepoan abiaturik, ere Kalifornian meatzari,

Edo baserritar gisa bizirik Dakotako oihanetako neure etxean, haragia soilik janean, iturbegietako uda edanez,

Edo ausnartzeko edo gogeta egiteko bazterturik, edozein harperen sakonean,

Bertan, munduaren hotsetik urrun, extasi zortxu artean iragaten delarik denbora,

Larreetan bazkatzen duter bufalo saldoak, bufar mardodun bufalo ilelatza, nabari izanik,

Lurraren esperientzia, mendi haiztsuak, mataloreak, izarrak, euri, elurra, miretxi egiten naute,

Txori isehariaren txinta eta mendiko gabirataren hegazkada arakatur gero,

Egusentian paregabeko txoriari, zozoari, zingiradietako zedro artean, entzunez gero

Bakarka, Mendebaldeari kantatuz, mundu berri baten himnoa jo egiten dut.

WALT WHITMAN-ek, Rudyard Kipling-en eritzi-z, "Hego handiegia zeukan bere kosmoan". Hego berau baita-poeta bezala baitirau naturaz mamindutako sortza gogor eta teinkatu bat, gogortasun eta teinkatasun honen kausaz haragiz eta uherki adierazten



dena, hasperenaren zoragarria, mugitaren zorrotza, sexuaren ase, lagunarenganako maitasuna, hostoak, nabaritzen direlarik.

Amerikar gizon bezala, bere sustraitiko bizitzatik, eta bere barneko "nitasunetik", bere poemak burkide-tasunaren, sexuaren, naturaren eta demokraziaren, aldiz bere neurtitzetan berariaz azaldua, aldiz fusilaz defendatua, kantu gorena dira. Berauk bizimamitzeko, ele hauekiko debotki bizi da eta berauei buruz zera dio: "Neronek bihurtuko ditut behinen, gizonak bere ixiltasunaz eta lotsa faltsuez lizundu eta likitutako hitzak eta ideiak; neronek kantatzen eta kontsaktatzen dut Egiptok kontsaktatzen zuena". Espazio eta indar guztien kantaria, batzutan JAINKO eta ERLI-GIO bezalako hitzez deituak, WILLIAN BLAKE-ren irudi betetan iradokiz eta baliatuz, berak altxarazirik hilobi batean ehortzia izan zen. Lurra ematerakoan, ez zen aperik ez eta elizkizunik ere, beraren esaldi batzu sendo eta maitekiro irakurriak izan zirelarik.

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

Hiruhilabetero JAKINEk eskaintzen du:

Monografiak
Azterketak
gaurko gaiak

Oraingo zenbakiaren gai nagusia:

FILOSOFO BERRIAK

Kolaboratzen dute;
Andonegi, Xabier; Azurmendi, Joxe;
Etxezarreta, Erramun; Knorr, Endrixe;
Muxika, Luis Mari; Pagola, Manolo; Suda-
dupe, Jon; Torrealdai, Juan Mari; Zal-
bide, Mikel; etc.

800 pzta urtean. 250 alea.
Eskabideak eta harpidetza:
Gral. Mola, 23, 1. DONOSTIA
Tel: (943) 27 17 13



ARRAIN SOUFFLE-A

6 lagunentzat beharko dituzu: hiru atun la-
ta edo 800 gr. arrain fresko (legatza edo antzeko-
a), 200 gr. ogimami(1), baso bat erdi esne, 5 arrault-
tze, irina, gurina edo margarina, arrain salda pixkat,
gatza eta biper hautsa, eta azkenez pepintxo(2)ba-
tzu.

Bi gauza ezberdin egin beharko dituzu batera.
Bata, saltsa. Bestea, pastela edo nahastura.

Lehenengoa egiteko ez duzu askorik egin behar.
Bechamel bat prestatuko duzu esne barik. Hau da,
esnea bota beharrean, arrain salda pixkat botako
diozu. Atunaz egiten baduzu nahastura, arrain pas-
tila bat bota diezaiokezu bechamelari. Bechamela
eginda, txikitutako pepintxo batzu botako dizkio-
zu bechamel gainetik.

Hona hemen nola egingen duzu nahastura:
Pote edo lapiko batetan sar itzazu ogimami-
ak, esnea epelduta, arraina, (freskorik badago, ego-
sita). Sardexka baten bidez nahas eta zapal hau guz-
tiau ongi lotu arte.

Har itzazu arraultzeak. Zuringoak, goringoe-
tatik banan itzazu. Bota goringoak potean edo la-
pikoan daukazun nahasturara. Bota ere gatza eta
biper hautsa. Geroxeago, zuringoak altxatuko(3)
dituzu. Oso gogor geratu behar zaizu merenge hau.
Bota merengea nahasturara, pixkanaka eta emeki.
Nahas guztia ongi.

Prestatze guzti hau eginda, busti ezazu molde(4)
bat gurinaz. Moldea, garaia edo zabala izan daiteke.
Bete ezazu moldea nahasturarekin.



Hemendik aurrera bi ahalbide duzu jateko hau
egosteko. Bata labean, barruan eta su ttikitari 20 mi-
nutuz edukiz. Bestea lurrin lapikoa erabiliz.

Lurrin lapikoa aukeratzen baduzu, bertan bi ba-
so ur botako duzu eta moldea paper fin batez eta gero
plater batez estalita, pastelari ura sar ez dakion, lapiko
barruan sar ezazu. Hitxi lapikoa eta balbula(5) biraka
hasten denetik 15 minutu eduki sutan.

Ateratzean, ipin pastela azpil batetan, bota ieza-
iozu gainetik egin berri duzun saltsa eta ...
On Egin

- 1) La mie. Miga.
- 2) Pepinillo. Cornichon.
- 3) Monter les blancs en neige.
- 4) Moule.
- 5) Soupape.

Masak ala eliteak? (III)



Gizartea, kontrako klaseetan banaturik egotearen kausa, produkzio medioen jabego pribatua

ETENGABEKO KLASÉ BURRUKA

Klase batek banaketa eta produkzioaren sozial sistiman duen tokiak, hain klase bezala itxuratzen duten kondizionamendu batzu ditu. Klase bat, gehienbat, filosofia marxista osoaren oinarri den produkzio medioekiko harremanetaz baldintzaturik dago. Hala nola teoriari burjesak sozial ezberdintasunak biologi izaerako arrazoiengan oinarritu nahi dituen, teoria marxistak bere arrazoiak produktu materialean eta klase sozial ezberdinek berarengan duten tokian funtsezatzen ditu. Historikoki, klase sozial antagonikoetan gertaturiko gizartearen banaketaren sustraia, produkzio medioen jabego pribatuaren agerpena izan zen. Azken honek, gobernamolde esklabistaren jaiotza suposatzen, berari datzekion kontraesanen zorrozteaz gobernamolde berberaren hondoramena probokatuko zuena,

horrela feudal produkzio erari atea zabalduz. Azken honex, bere baitan izaniko produkzio indarren bilakaeraren ondoren, merkantilismoa sorteraziko zuen, gizonak gizona esplotatzeko sorturiko sistimarik sofistikatuena, hau da, gaurko sistema kapitalistaren eramuina dena. Kapitalismoak, esplotakuntza sistema orok bezala, ezin du bere barnean mundu mailako krisi ugari eta etengabeak sortzen dituzten bere kontraesan propioekin zerikusirik ez balu bezala iraun. Krisi orokor hauk, gerrak, iraultzek, eta kapitalismo hagoniatsu eta sozialismo goranzkorraren arteko burrukak karakterizatzen dituzte. Kapitalismoaren baski orokorrak bere aurpegi guztiak abarkatzen ditu, nahiz ekonomikoa, nahiz politikoa. Krisi honen adierazpena, alde batetik, gero eta baja gehiago dituen sistema kapitalistaren ahultze gero eta nabariagoa eta, beste-

tik, kapitalismotik bananduriko Herrien botere ekonomiko hazkorra dira.

Historian zehar, eta ez bakarrik gaur, gizonen produkzio medioekiko harremanak, klaseek produkzio sozialean duten tokia eta papera, hala nola diru sarrerak lortzeko era, beraien tamainia eta produkzio ondasunen jabegoarekiko ezberdintasunak mugatzen ditu. Ondasun ezberdintasunak posizio dispareak dakartza: batzu, dirudunak, klase dominantzaitan eraikitzen dira; besteak; jabego gabeak, txiroak, klase zapalduak dira. Jabegotik bizi da klase bat; bestea, bere lanetik. Klase kapitalistak, bere diru sarrerak berarentzat lan egingo duten beste batzu enplegatuz lortzen ditu. Langile klaseak bere diru sarrerak, bere lanaren bidez lorturiko alokairu eran lortzen ditu. Ezin daiteke klase hauen artean harmoniarik izan. Ezina da ere beraien artean paktu iraunkorrik sortzea. Klase gerraren talde biok, jokatzeko duten bezala jokatzeko ezin dutelako bestetara egin. Kapitalistak, etekinik handienak lortzeko ahaleginetan ihardun behar du kapitalista iraun nahi badu. Langileak, sistema lurreratzeko ahaleginetan ihardun behar du bizitzeko jarraitzeko. Bietariko bakoitzak, bestearekiko garaipenarekin soil-soilik triunfa dezake. Kapital eta lanaren arteko harmoniari buruz dagoen elekeria guztia, zentzugabekeria huts bat da, edo hobeto, klase burjesaren manobra argi bat, bere agintea mantentzeko azken saialdi bezala. Gizarte kapitalistan ezina da harmonia hori, zeren eta klase batentzat ona dena, bestearentzat txarra da, eta alderantziz. Beraz, gizartean produkzio medioen jabeen eta langileen artean egon behar den harremana gerra egoera huts batena da.

Gizartearen aurrerapena ez dago "gizon handien" nahiak eragina, filosofia burjesak dioen bezala. Aitzitik, gizarte-

ren aurrerapena determinatzen duena produkzioaren aurrerapena da. Produkzioaren aurrerapenean erarik artezanean parte hartzen duena herri langilea da, bera da klase dominatzaileen esplotakuntzaren uztarrria zuzenki jasaten duena. Beraz, eta herri langilea izanik material ondasun guztiak zuzenki ekoizten dituena, berak izan behar du herrialdeko bilakaera produktiboaren zereginez konponbideak planteiatuko dituena. Herri langilea da, esplotakuntzaren uztarrria jasanez, nahiz politikazko, nahiz ekonomi, nahiz sozial zailtasunak ezaguturik, gizartearen bridak zuzenki hartu eta sozialismorantz zuzendu behar duena.

"Herri langilea" kontzeptuarekin ari naiz, ezina baita "Herria orokorki" hartzea balizko komunitate etniko bezala, zeren eta "herri" kontzeptuaren definizioa, klasista eta historikoki konkretua izan behar baita.

GIZARTE PRIMITIBOA ETA JABEGO PRIBATUA

Nahiz eta klaseak gaur errealitate bat, errealitate penagarri bat izan, ez dira beti izan eta ez dira betiko izango. Esan dudanez, klaseak, produkzio medioen jabego pribatuaren sorreraekin sortu ziren. Gizarte primitiboan ez zegoen klaserik, jabego pribatua ez baitzen ezagutzen. Denbora luzez, lehen gizona janari bilketa, ihize eta arrantzatik bizi izan zen printzipalki, kolektiboki eta lanabesik zakarrenen laguntzaz egindako lanak berak. Janari urritasunak, gizon artean gizaialetasuna sortzen zuen batzutan. Gizarte primitiboan, hain ziren sinpleak lanabesak, ez ziotela gizon bakarrari Naturaren indarrei eta basapiztietei aurpegi egiten uzte^o hortik, bururen eta beste produkzio medioekiko elkar jabegoaren eta lan kolektiboaren beharra. Gizon primitiboak ez zuen produkzio medioen jabego pribatuari buruzko ideia, ez eta hurrik eman ere. Milaka urtetan zehar, produkzio medioak hobatuz joan dira, eta lan kolektiboa lan individualagatik, sozial jabegoa pribatuagatik eta leinutar gobernamoldea klase gizarteagatik desplazatuak dira. Une honetatik aurrera, gizateriaren historia, gizarte sozialistaren erakuntzara heldu arte, klase burrukaren historia bihurtzen da. Horrela ba, gizartea ez dela beti klasista izan dakusagu, eta dakigunetik, klase gabeko gizartea oraingo gizarte klasista baino milurteko gehiagotan izan dela ondoriozta dezakegu, horrela klase ezberdintasunaren biologi jatorria defendatzen duen teoria burjesa faltsukerian utzirik. Klase batek beste klase baten gainean ezarririko zapalkuntza ez da beraz, "giza izaeraren" fruitua, gizartearen bilakaera historikoarena baizik. Ez da beti opresiorik izan. Ez da betirako izango. Ez dira beti



aberatsak eta txiroak egon eta ez dira betirako egongo. Ez dira betirako izango, zeren eta ezberdintasun sozialaren aurkako errebelamendua egon baita, baitago eta etorkizunean garaile irtengo baita. Zenbatezinezko errebelamendu materialak, hau da, klase zapaltzaileen aurkako matxinadak egon dira. Klase gizarte ororen historia, urratzen duen klase burrukaren historia da. Klase esplotatzaile eta klase esplotatuaren arteko, edo eta esplotatzaile eta klase ezberdinen arteko burrukak, formarik aldakorrenak hartzen ditu, une historikoaren arauera eta gizarte bakoitzaren eta bere bilakaeraren etapa zehatzaren arauera.

Klase ezberdinketaren prozesu historiko guzti hau aurkako klase biren jalgitzearen burutzen da: burjeseria eta proletalgoa, eta bataren bestearekiko esplotakuntzarekin. Klaseen sorrera eta beraien gizartearen duten posizio kontrajarria suposatuko zuen komunitate primitiboaren suntsitzeaz geroztik, klase biok, klase ezberdinen desagertze eta sozialismoaren finkapenarekin bukatuko den etengabeko burruka eramango dute. Burruka hau, mende ugaritan zehar gizateariaren bilakaeraren karakteristikarik garrantzitsuenetariko bat izan da. Klaseen izatea da zuzenki, esplotakuntza duen gizame oro karakterizatzen duen sozial injustiziaren oinarria. Ez da "buruzagien borondatea", ez eta gizonen kualitateak, klase esplotatzailearen ideologoen beti frogatu nahi izan duten bezala, baizik eta, alderantziz, klase baten ala bestearen kide izatea. Azken honek, batzuen egoera nagusi eta pribilegiatua eta beste zapalkuntza, gabezia eta eskubide eza azaltzen du. Baina, zer da klase bat? Klaseen definiziorik onena, V. I. Leninen "Iniziatiba handi bat" liburuan aurkitzen dugu: "historikoki determinaturiko sozial produkzio sistiman duten tokiagatik, produkzio medioekiko beraien harremanengatik, lanaren sozial eraketan duten paperagatik eta, beraz, aberastasun sozialetik duten atalaren tamainia eta berai lor-

tzeko eragatik ezberdintzen diren pertsona talde handiei deitzen diegu klase. Klaseak gizatalde batzu dira, zeinetatik bat bestearen lanaz jabe baitaiteke, ekonomia sozial sistema jakin batetan dituzten toki ezberdinei esker".

KLASE ERAKETA ETA ALDERDIAK

Gaur, klaseak, klaseen kideak, eratu egiten dira beraien helburuen lortzeko, eta eraketa honek alderdi politikoen burrukan du bere espresiorik osoena, beraien baitira klaseen interesen ordezkari eta gatasketan klaseak zuzentzen dituztenak. Honekin ez dut esan nahi alderdiak direnik langile klasearen eraketa erarik gna, baina mementuz, bai erabiliena. Ez dute alderdi guztiak aitortzen beraien klasearen interesen defendatzaile direnik eta, praktikan, beraien militanterik nabarmenenetan haragiturik, kasu askotan alderdi berberak dira defendatzen omen zituzten interesak saltzen dituztenak, beraien klasea salduz. Sozialismoaren kontrakoek sozialista eta demokrata izena aukeratzeko maiz, hala nola nazio interesak saltzen dituzten alderdi batzuk beren burua nazionalista (abertzale) deitzen dute. Metodo guzti hauk, masen barneetik bertatik masen burruka galgatzeko burjeseriak erabiliak dira. Burjeseriak maneiatutako alderdi hauen arriskua hau da: planteiamendu sasizozialista, sasinazionalista, edo eta sasidemokratikoekin masen atal handi bat erakartzea lortzen dute. Leninek langilei jite horretako baiezenengatik engaiatzen utz ez zitezien iharduten zien, alderdi burjes eta burjes-tipien bisaia faxista egiazkoa bistan jartzeko eta alderdiak beraien ekintzagatik eta ez beraien hitz, deklarazio, kontsigna edo erabakiengatik, epaitzen erakusten zien. Alderdi politikoei, klase interesak defendatzen dituzten erakunde gisan aipamen bat eginik eta burruka, bloke bien artean, burjeseria eta proletalgoaren artean dela kontsideratuz, era berean alderdi politikoa ere bloke handi bitan bana ditzakegu, defendatzen dituzten klase interesen arauera. Kapitalismoa nagusi den Herrietan, langile mugimendua iraultzaileak izan duen igoerak, proletalgoaren burruka politikoa, ekonomikoa eta ideologikoa zuzentzen duten alderdi langileen erakuntza eta finkapena ondorioztatzen du. Alderdi burjesek ez EZALA; ALDERDI LANGILEEK; LANGILE KLASEAREN ALDERDIEK; KLASE ALDERDIAK DRELA ZABALKI ALDARRIKATZEN DUTE: langile klasearen alderdiak dira, langileen interesak ordezkatzeko dituzte eta beraien helburuak sozial bilakaera aurrerakoietarekin egokitasunean daude.

Galtzagorri

Kooperatiba

Aurreko agirian esaten genuen bezala, gu ez gara antikooperatibistak. Baina, langileak eta antifaxistak garenez gero, kooperatiben mugimendua eta langileentzako dituen ondorenak, analizatu beharko ditugu.

Kapitalismoa mundu osoan kinka larrian aurkitzen da. Entrepresa handi eta txikia, ekonomi "batxe" honetatik ateratzeko, langileen guttitzea edo lan postu berririk ez sortzearen bidetik doaz.

Honako egoeraren aurrean, langileentzako kooperatibak duten garrantzia ezin ukatzekoa dugu, lan postuak sortzearen aldetik batipat. Bestalde, kooperatibismoaren lehenbiziko helburua, ekonomi indar bat izatea da.

Antifaxistak eta euskaldunak garen aldetik, Euskal Herria bere askatasun eta independentzi bidean, tresna hau ere erabiltzea —diruarena alegia— onartzen dugu. Baina langilearen lepotik izan behar ote du? Nahiko ez ote da, kapitalismoari esker dugun "aurreramenduan" langileriak ordaindu eta ordaintzen dagoen zerga?


Herrialde batzuetan lan postu gabezia oso larria dela ezin ukatu, ez eta ere kooperatibak lan postuak sortuz, larritasun hau leuntzen dutela.

Kooperatiben mugimenjuaren eratzailak ongi baliatzen dira premia garrantz honetaz... Eta ondorioz, kooperatibetako langileoi oinarritzko dena ukatzen zaigu, hauida, langile kontzientzia lantzeko iturriak eta bideak. Nola?

1. Postua, eta alokairua jaun eta jabe legez jarriz. Ogi bidea galtzeko arriskuak langileak kikiltzen du.

204. LANKIDE aldizkarian Ormaetxea jaunaren honako hitzak irakurtzen ditugu: "Hay que dar nuevos pasos; nos debemos al lema de "renacer y adaptarse" que es tanto como decir que debemos ser permanentemente inconformistas", eta beste hauk: "lo que fue bueno hace unos años en materia de convivencia social y humana puede hoy no serlo. La dirección debe hacerse inevitablemente más compartida y los problemas de la empresa deben ser examinados y resueltos por todos. Si hemos creado la empresa autogestionaria, que lo sea plenamente, distribuyendo tanto las responsabilidades como el derecho a participar en las decisiones".

28. hor



Gizonezko eta emakumeen arteko desberdintasuna onartzen da, postuak ematerakoan ordaintzerakoa.

Honelako hitzak esatea erraza da baina, nolako ubideak sortzen dira kooperatiba barnean?

Egunero ikusten duguna zera da: kooperatibista ona izateko, postuak gora eta gora igoteko, produkzio ugaria ateratzeko eta ekonomi indarrak indartu eta indartu egiteko... "lavado de cerebro" egiten dela esan behar zoritxarrez.

Baieztape hau egitea oso "grabea" dela ohartzen gara eta nola egiten den agertuko dugu.

Egia ezkatatuz eta honelako topikoak erabiliz:

- a) Bide sozialik onena dela.
- b) Herriaren onerako dela.
- c) Buruzagien dedikazioa neurri gabekoa dela.
- e) Teknikoen gertuketari izugarritzko balioa emanik.


f) Konparaketak eginda eta esan lanaran edo makina baten aurrean lan egiteari garrantzia kenduz.

Jokabide honen ondorenak honelakoak dira:

1. Ahoa itxita geratzea egoeraz zapaltzailea onartuz, lan postua ez gaituzeko edo "dirigentearen" lana baina mailakoena baino garrantzitsuago dela sinetsirik.

2. Gizonezko eta emakumezkoen arteko ezberdintasuna onartuz. Ezberdintasun hori, ordaintzerakoan eta lanpostuak ematerakoan egiten da. Guttienez baloratutako postuak ematen zaizkie. Zer esanik ez, "dirigente" klasetik kanpo geratzen direla (Consejo de Dirección, encargados...) idazkari mailan jartzen bakarrik tokia eta jakina, gizonezkoen idazkaria! izanik.

sozialismo bidean (II)



Prostituzio maila ere ematen da: Dirigenteak, gizonezkoak jakina, ondo daki- te emakumea nola amainatu!!! Eztike- riaren bidez, dirigenteen handikeria handitasuna dela sinestaraziz. Joko hontan erortzerakoan, langilearen aur- ka egitea oso erreza da.

Bada, emakumearen zapalkuntza bi eratakoa da, emakume eta langile beza- la.

Gizonezkoa ere ez da joko hontatik kanpo geratzen. Dirua izanik, prostitu- zio honen bidea.

3. Goragoko postuen egarria. Prepa- razio gabe lantegian sartu, preparazioa hartu eta soldata handia ordaintzea nahi.

— Langile batek hiruzpalau urtetako esperientzia eduki arren, borrokalaria bada, ez da promozionatzen edo nahiz

eta bere gertuketa egokia izan, behe mailan geratzen da.

— Makinetan peoiek experimentuak egin eta teknikoek probetxatu.

— Grebarako motibazio guztiak eze- reztu.

4. Elkar salatzeria helduz... Goikoen txibatoak izateraino...

— Goikoen egonaldi eta berriketak justifikatu eta behekoenak salatuz...

— Burruka onartuz eta laguntasuna ukatuz...

5. Ixiltzen direnei postu hobek eskaintzen zaizkie eta sarritan, ikaske- tak egiteko era ere ematen zaie. Postuei helduz gero, zera esan behar da, ez dagoela era hontako ezberdintasunera- ko arrazoirik zeren, kooperatiba eta edozein lantegi, gurpil engrane pieza bat baino ez baita gizartearen engranaia sisteman. Gurpil engrane horren hortzek berdinak izan behar dute eta guztietara zeren bat besteak baino handiago edo gogorragoa bada, besteak hautsi edo jan egingo baititu.

Lantegi bateko sekzio edo lan postue- kin ere berdin gertatzen da. Langile batek postua dela eta bere burua larregi eslimatzen badu, besteak desestimatu egiten ditu. Hortik dator lantegiko uste- llasuna —hau da— langileen arteko batasuna apurtzeko tresna.

Zalantzarik gabe, 43 urteko faxis- moak badu zer ikusirik pentsakera eta jokabide hontan. Nahitaezifaxismoaren etekin gara.

Baina, esnatzeko ordua dela uste dugu eta erruak zuzentzen hasteko. Zoritzarrez, kooperatibetan edozein lan- tegi kapitalistatan bezala, langileen esnatze mailan jokatzeko dutenak, zi- gortuak izaten dira. Guztiz kontrola- tuak langile hauen joan etorri guztiak, nortzuekin hitz egiten duten...

Kontrol hau, arduradun eta eskirolen bidez egiten da.

Produkzioaren izenean, diziplina faxista militar erakoa ezartzen da, beraien buruak jaun txikiak eginez, eta langilea menpeko izakia bezala erabiliñ. Guzti honi klasismo izena eman ezik nola deitu?

Kooperatiben mugimenduak, teoria mailan jarrita dituen helburuak lortze- ko, Euskadiko langileriak edukiko ote du barrabilarik?

Euskadiren askatasunaren muinean



langile burruka dago eta honen bide bakarra IRAULTZA dugu. Eta ez dugu ahaztu behar, iraultzak erdi biderik ez duela onartzen.

K. L. B. ren eginkizuna kooperatibeta- ko giro errepresiboa salatzea eta ALTERNATIBAK eskaintzea da.

Eguraldia igarteko era zahar bat

Gaur egungo euskaldun gehienoi, "ilegun", "sortelegun", "zotelegun" edo "zothalegun", "igarregun" eta "xino" hitzek ez dioskue ezer, baina ez zen berdin gertatzen gure arbasoekin. Honela, Nafarroa Garaian "ilegunak", Lapurdin eta Zuberoan "zotelegunak" edo "zothalegunak", Behenafarroan "zotelegunak", "zothalegunak" edo "xinoak", Gipuzkoan "ilegunak" eta Bizkaian "ilegunak" edo "igarregunak", urtean zehar izango zen eguraldia igarteko zerbitzen zuten egunak ziren. Eta, zeintzu ziren egun hau?, ba, urtearen lehen hamabiak, bakoitza hila-bete bati dagokiolarik, hau da, lehen, urtarrilari, bigarrena otsailari, eta abar.

Urtarrila / 79

astelena	asteartea	egustena	eguzena	barikua	larumbata	igandea
1	2	3	4	5	6	7
urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila
8	9	10	11	12	13	
abuztua	iraila	urria	azaroa	abendua		
14						

Ez dakit nik metodo honek ondore onik ematen zuen ala ez, baina XX. mendearen azkenetan bizi naizen pertsona bat izanik eta gaurko ostagikindeak edo meteorologiak erabiltzen dituen tresnei eta teknikei begiratu, ez dut uste gauza handirik lortuko zuenik. Dena dela eta, ba dirudi, metodo hau oso zaharra dela eta ez zela erabili Euskal Herrian bakarrik, zeren Azkuek bere "Euskaleriaren Yakiniza"n dakarren 30. hor.

moduan, bai Tirolen eta bai Normandian ere ezagutzen baitzen, aldaketa batekin: Herri horietan, Gabon-egun eta Errege-egun artekoak ziren hamabi egunak, eta ez urtearen lehenak. Behar bada, Euskal Herrian ere horrela izango zen, zeren aintzinean urtea Gabon-egunean (neguko solstizioan) amaitzen baitzen, beraz, horik ziren orduko urtearen lehen egunak.

"Eta zertara dator guzti hau?" esango zuen oraingoz batek baino gehiagok. Ba, egia esan, gauza gutxitara. Ni, aurtengo lehengo 12 egunetako eguraldiaz konturatu naiz, eta baten batek txorrada honetan denbora apur bat galtzeko

gogorik badu, ea gure arbasoen asuntu honek ezertarako balio duen jakingo du.

Bilboko eguraldia egun horietan ondokoa izan da:

1ean, beraz Urtarrilari dagokion egunean, goizean hotza eta euria; arratsaldean aterri baina hotzak segitzen zuela.

2an, beraz Otsailean, goizean lainotsu, hotz baina aterri; eguerdian eguzki itzela eta arratsaldean eguraldi ona.

3an, beraz Martxoan, hotz, haize eta euri egun osoan. Eguraldi guztiz bustia.

4ean, beraz Apirilean, zerua ia oskarbi, haizea eta tenperatura epela.

5ean, beraz Maiatzan, zeru garbia, eguzkia, tenperatura epela eta haizerik bat ere ez.

6an, beraz Ekainean, zerua erabat estalita, tenperatura ona eta haizerik ez. Ez da euririk izan baina hortxe hortxe ibili zen.

7an, beraz Uztailean, zerua lainotsu, haizerik ez eta hotza. Arratsaldean, momentu batez zirimiria ere izan da.

8an, beraz Agorrilean, goizean epel eta lainotsu, eta gero zirimiria. Arratsaldeko argitu eta egun ona geratu da.

9an, beraz Irailan, epel, lainotsu, eta haizerik ez. Goiz goizean eta arratsean zirimiri apur bat izan da.


10ean, beraz Urrian, epel, erdi lainotsu eta aterri.

11ean, beraz Hazilean, hotz, haize eta euri.

12an, Abendurakoan, bezperaren antzean, baina hotz eta euri gutxiagokin.

Ba dakit oraingoz exigenteren batek esan duela hau ezin dela izan egia, zeren urtearen lehengo eguneko eguraldiak urtarril osokoa kondizionatzen badu, urtearen hasierako beste 11 egunak ere kondizionatzen duela, beraz, urte guztiko eguraldia geratzen dela egun honen menpean. Baina, ene lagunok, denok dakigu nola santu handienek ere noizik behin izan dituztela bere pekatutxoak, eta hala eta guztiz ere santuak dira; hau honela izanik, metodo honi barka die-zaiokegu honelako huts tiki bat.

Orduan, sinisimen apur batez eta beste zorte apur batez, ba dakigu zein izango den aurtengo eguraldia. Behar eta nahi duenak, planifikatu ahal ditu oraindik bere oporrak. Badaezpadan esan behar dizuet metodo honek ez duela "asegurorik", beraz, ez dago inori "daños y perjuicios" eskatzerik. Mundu honetan ez da gauza perfektorik eta...



GERTATU
BEHARREZKOA
IZAN DA.

POLPTAGOTZERA
ZIHOANEAN...

Euskal eskola publiko eta herritarrerantz

Abenduaren 7tik, "referendum nacional"aren eguna pasatu ondoren, Euskal Herriko ikastolak antikostituzionalak direla, konturatzen al gara...?

Hemendik aurrera ikastola instituzionalizatzea oinharrizko eta premiazko arazoa da.

Elebitasunaren dekretuaren bidez, lehenengo pausoa ematea pentsatu zen. Hiru alternatiba zeuden:

1. Orain gauden bezala jarraitzea.
2. M.E.C.rekin konbenio zuzen bat eratzea. Hauxe da, ikastola estatalizatzea.
3. C.G.V.ren bidez, M.E.C.rekin konbenio bat egitea.

Zein izan zen M.E.C.ren erantzuna...?

Argi eta garbi, ikastolei buruz ez zuen ezer jakin nahi; eta berehalaxe elebitasunaren dekretua baztertu egin zuen.

Baina, Irakaskuntzaren kontseilari-tzak, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko ikastolen konfederakundeek ez dute erabaki hau onhartzen, eta ikastola, fenomeno berezi bezala begiratzea exigitzen dute.

Horrexegatik, hirugarren alternatibari, ikastolen federakundeek, M.E.C.k, C.G.V.ren bidez, konbenioaren berradorea bat prestatu egin dute, eta C.G.V.k, erakunde publiko bezala, ikastolen tutoregoa egingo luke.

Une honetan akordio honen proiektua debatitzen ari da.

Ikastolen transformapen prozesua hastea, ikastola erakunde publiko izateko, berradorearen helburu nagusia da.

Zeintzu dira bere aspektu aipagarriak...?

Beharbada, konbenio hau aztertu baino lehenago, ditugun puntu ilun batzuek argitzea, komeniko litzateke. Esate baterako, Euskal Herriko ikastolen federakundea, bere nortasun juridikoarekin sortu nahi izanez gero, Nafarroa eta Seaska —Ipar Euskal Herrian dagoen federakundea— non eta nola geldituko ote dira?

Halaber, ikastolak zer izan behar duen, eta zer nahi duen, berriz berraztertzea behar dugu. Eta soilik, gure helburuak argitu ondoren, komenio hau aztertzeko edo eta formula egokienak blatzeko prest egongo gara.

Komenio honen barruan, azaletik, planifikazioaz eta autogestioaz hitz egingen da. Irakurtzerakotan zalantza batzuek sortzen zaizkigu.

Elkarteak...— zerbait edukiko dute esateko, noski.

Baita erakunde hauen errepresentazioa edo eta partizipazio zuzena berrikusi behar da.

Hala ere, zalantza hauk eta beste batzuek agertzen zaizkigun arren, komenio honen berradorearen asmoak ahalgin handi bat erakusten digu.

Lehenengo momentu honetan komenioaren azterketa bat zehatz-mehatz egitea, eztabaida huskerietan hasteko, errore bat izango litzateke. Ikastola instituzionalizatzekeo proiektu global honi, gure baietza eman behar diogu.

Zehazpena gerorako utziko dugu, lankorra eta sakona izan behar du eta.

Komenio honen aurrean, erakunde batzuen jarrera

Gipuzkoako Ikastolen Federakundeak, komenioaren berradore hartu eta 15 egun geroago, premiazko asanblada bat prestatu zuen, beste gauza batzuen artean estudio hau onartzeko. Baina ikastolen debate faltagatik, aukera hau atzeratu egin zen.

Antza denez, arintasun honen kausa, Madrilen, Estatuko presupostu nagusiarri buruz egiten ari zen estudio bat da; eta ikastolek, zentru estatalak ez garen gero, ez genuen ahalbiderik laguntza ekonomikoak lortzeko.

Gaur egun, bi izan ezik, Gipuzkoako ikastola guztiak konbenioa, gaingiroki, aprobata dute. Bai eta ere Gipuzkoak bakarrik konbenioaren izenpetzea egiteko presentatzea, planteiatu da.

Bi hilabete iragan ondoren, hau da, konbenioa estudiantzeko nahiko denbora, Bizkaiko Ikastolen Federakundeak, Durangon, asanblada berezi bat konbokatatu zuen, konbenioa onhartzea posible ote zen ikusteko.

Erabaki hau hilabete bat atzeratu egin zen. Zergatia barneko eztabaidetan dago. P.N.V.koek, bere aldean dauden 18 ikastolekin, atzeratzeko proiektu hau, edo eta baztertzeko, asmoa dute, ez direlako ados eskola publikoaz.

STE-EILAS-ek eta Irakasleen Elkar-teak, haien aldetik, baietza eman diote.

Jarrera honen aurrean, gaur egun, aurkitzen gara, euskal eskola publiko eta herritarra aurrera eramateko.

Eta, euskal irakaskuntza, erabaki honetaz, bere etorkizuna jokatzeko ari da.



Adibidez, irakaskuntzaren planifikazioan nortzuk hartuko dute parte eta zergatik? Ikastola, nork legezkatuko ote du? Eta nolako kriterioz?

Zergatik Madrilgo zentruarekin harremanetan?

Klausula batetan C.G.V.k, txapelketa publikoren bidez, irakasleak kontratatuko dituela esaten da. Zergatik izan behar da C.G.V. soilki? Beste erakunde batzuk —Euskaltzaindiak, irakasleen

HERRI BATASUNA

HERRI BATASUNA

**DEFRAUDATUKO EZ DUEN KANDIDATURA BAT
HERRIEN ATZETIK PAKTO ETA KONPONKETARIK GABE**

**Konstituzioarekin hartu zenuen jarrerarekin kontsekuente izan !
Hemen, ez da inor engainatzen. Puntu guztiak ageri daude.
HERRI BATASUNARI zure botua ematea ondoko puntuokin
ados egotea da.**

- Amnistia osoa, askapen demokratiko osoak (alderdi guztien legezapena)*
- Indar zapaltzaileak, zatika, baina aldez aurretik erabakitako epe batetan barruan Euskal Herritik kanporatzea*
- Indar harmatuak euskal gobernuak kontrolatzea*
- Langilei hobekuntza jeneralduek ematea*
- Autodeterminaziorako eskubideak eta boterea emango dituen AUTONOMI ESTATUTUA ematea.*

**HAU UTOPIA IZANEZ GERO, EUSKAL HERRI BAKETSU,
DEMOKRATIKO ETA BIZI DAITEKEEN BATETAN SINESTEAK ERE
UTOPIA DUZU**

Napoleon-en mitoa

Napoleon eta Hitler. Zein alde dago batetik bestera?

Napoleon izena aipatzean, gizon handi bat datorkigu berehala gogora, nahitaez. Bestalde, Hitler aipatzerakoan, munstro batez ari garela dirudi. Eta bi pertsonaia hauen biografiak aztertzerakoan batetik bestera ezberdintasun handiegirik ez dagoela aitortu behar dugu. Are gehiago, esango nuke Napoleon Hitler-en prekurtsore antzeko bat izan zela, Hitler-ek Napoleon-en urratsak jarraitu zituela hainbat aldiz.

Fenomeno guztiak zergatia bat dute, iturri bat, zerbaitetan oinarritzen dira, eta hori gertatzen da Napoleon eta Hitler-en kasuetan.

Napoleon frantziarra izan zen. Bueno, korsikarra baina frantseztatua. Hitler, bestalde, alemana. Frantziak, eta bereziki Parisek, eragin handia izan du mendebalde Europako kulturean. Alemaniak ez du Frantziak bezala hiri monstruos bat, Paris bezalakoa. Alemaniako hiriak berdinuagoak daude bizilagunez eta, beraz, Berlinek ez du Parisen eragina izan. Horrez gainera, baztertuagoa dago, ekialderantz gehiegi kokatua.

Parisek, beraz, mendebaldeko europar, kultur arloan, eragin handia eduki du eta Paristik Napoleonen mitoa sortu dute.

Hitler izan zena izan zen Alemaniako populuak lagundu egin ziolako. Napoleon izan zena izan zen Frantziako populuak lagundu ziolako. Beraz, Napoleon gizon zital bat izan bazen, Frantziako jendea tonioa izan zen ala hura bezain zitala. Eta etiketa hauk ez zitzaizkien komeni frantsesei. Beraz, Napoleonen mitoa sortu zuten, haren hutsak bigunduz edo estaliz eta haren arrakastak biziki handituz eta goralduz. Horrela ekilibrioa aldatzen zen Napoleonen faboretan.

Berriki Napoleonen biografia euskaraz idatzi dut eta lan hori idatzi ahal izateko hainbat liburu kontsultatu behar izan dut, batzuek frantses idazleenak eta gainerakoak beste nazionalitateetakoak, eta oso nabari ikusi dut frantses idazleen partzialkeria.

Euskal Herriaren etsaiek esaten dute euskaldunok arrazistak garela, baina inoiz Xabier Kintana-k esan zuenez, Arrazaren Eguna espainolek inbentatu dute eta ez euskaldunok. Eta frantsesei bagagozkie, Frantziaren egon den edonork ongi ezagutzen du frantsesek beren Estatuarekiko duten harrotasuna eta nagusikeria.

Esan dezagun argi eta garbi: Napoleon, Hitler bezala, Europaren konkistatzaile izan zen, eta frantsesek, alemanek bezala, buruzagi bi hauei jarraiki zitzaizen fanatikoki europar lurraldeak zehar, heriotzea eta hondamendia eramaten zituztelarik. Kasu bietan, Europako gainerako Estatuak Frantzia eta Alemaniaren aurka burrukatu ziren, beren independentziaren alde, eta kasu



bietan Ingalaterra izan zen aliatuen buru eta gidari, konkistatzaileentzat gótorleku gaindiezina.

Napoleon ingelesek gainditu zuten, Mantxa Kanala iraganez, Waterloo-ko batailan, Flandesen. Hitler ere berdin antzera izan zen gainditua, Ingalaterratik armada aliatua Normandia-ra iragan zenean.

Nik, euskaldun bezala, Napoleonen biografia idazterakoan, portaera bat hartu behar nuen. Zein bide jarraitu, frantsesena ala aliatuena? Zeren esan dudan bezala, biografiok ondoren ezberdinak ateratzen baitituzte beren nazionalitateen arabera.

Idazle bat, noski, inoren biografia idazterakoan, egiari lotu behar zaio, baina denok dakigu egia hutsa ez dagoela. Zein neurritz juzgatu, epaitu behar dira hainbat eta hainbat ekintza? Gizon baten bizitzan, milaka ekintza daude. Zeintzu aukeratu behar dira? Nolako tratamendua eman behar zaie? Idazle neutrorik ez dago, eta besterik uste duena oker dago. Irakurleari eta egiari errespetua zor zaie eta idazlea ezin daiteke sar asmatzen, inbentatzen. Gertakizunak kondatu behar ditu, baina nola? Zeren edozein gertakizun era ezberdinetara azaldu daiteke, motibazio ezkutuek eta agiriak eduki ditzake.

"Liberté, égalité eta fraternité". Hori omen zen Frantziako Iraultzaren slogana, eta Napoleonek eta frantses armadek bandera horrekin atakatu zuten ia Europa guztia. Gaur ere, Frantziako Estatuan, hitzok dira frantziarren ezaugarri bezala. "Liberté" horren izenean menperatu zituzten frantsesek Austria, Flandes, Prusia, Italia, Errusia, Portugal, Espainia, etab. "Fraternité"ren izenean hil zituzten hogeit bat milioi

europar, zentzugabeko guduetan. Eta "Egalité"ren izenean, gaur, euskara bazterturik dago Frantziaren menpean dagoen Euskal Herrian. Hau dena Napoleonen frantses biografiok ezkutatu egiten dute, eta idazle aliatuek, eta nik ere noski, idazleei aurkezten diet. Napoleonen beste aurpegi bezala. Aski adierazgarri gertatzen da honetaz nire libururako aukeratu dudako foto bat, zehinetan Napoleonek menperatutako jendeak Napoleon satirizatzen duten gogorki. Argazki hau Madrileko Museo Municipalen gordetzen da eta ez da garai hartako bakarra. Ingelesek bereziki beren humore finarekin, Napoleon zeharo karikatuzatu zuten hainbat eta hainbat grabatuetan.

Eta hemen, orain, plazaratu nahi dut euskal idazleen zeregina. Nola idatzi behar dugu? Literatura hutsa egin behar dugu? Agnostikoak, neutroak izan behar gara? Artista bat, nola portatu behar da gaur Euskal Herrian?

Ene ustez, Picasso-k izugarriko mesedea egin zion Euskal Herriari "Gernika" koadroa pintatzean. Agustín Ibarrola dugu beste pintore konprometatutatu bat. Aresti, poeta konprometatutatu bat.

Gure aurka erasoak jasaten ditugun bitartean, Euskaldunon aurka hainbat mitoa sortu digutenean gure kaltetan, gu literatura hutsa egitera mugatu behar gara? Ez al dugu gure liburugintzan zirrikitu bat bilatu behar herriak darman burrukan parte hartzeko?

Ba dirudi denak ez direla eritzi honetakoak. Ba dira uste dutenak pintore batek erretratuak, bodegoiak, paisaiak eta arte abstraktu ez konprometatua pintatu behar duela eta ez pintura aberizalea edo soziala. Idazle batek literatura soila egin behar duela, euskal burruka nazional eta sozialean parte hartu gabe. Barka, baina ni ez nator bat eritzi honekin. Euskal Herriak bere nazio nortasuna hil ala bizikoa duenean, krisi ekonomiko larri batek milaka langabe sortu duenean eta zeini sistema kapitalista irfenbiderik ikusten ez diogunean, euskal idazle batek hitz egin behar du, bere lanetan giza kontzientziak behin eta berriro esna erazten ahalegindu behar du. Euskal idazle bat gaur, ene eritzi, ezin daiteke neutro izan, are gehiago, ezin zaio permititu neutro izatea. Gaur Euskal Herrian literatura hutsa egitea luxu bat da. Are gehiago, literatura bat momentuko giroaren adierazlea bada, gaurko euskal literaturak gure Herriaren oihu latza, egoera nahasia eta kontraesan anitzak azaldu behar ditu, gure bizi nahia, gure euskal izan nahia, justizia sozialaren aldeko gure oihua jaso behar ditu.

Eritziak eritzi, nik besterenak errespetatu egiten ditut, baina nire aldetik esan behar dut idazle konprometatua sentitzen naizela. Egiaren zerbizutan, noski, baina Euskal Herriari egiten dizkieten zapalketak salatuz.

Xabier Gereño

euskadi
egiten
EUSKADIKO
EZKERRA **ari**
gara **E**



Autonomia dela eta, zientziari eta beronen aplikazioei buruz mintzatuko naiz, hau guztiau Euskal Herrian finkatzen dudalarik.

Orain arte zientzia kapitalaren aldekoa izan da. Kapitalak berak, aspaldidanik, zapalbiderik nagusientzat jo du zientzia. Eguneroko errealtatean inguratzen gaituen edozein gauza baliadun zein baliagabe, azken batez lurgainetik nahiz lurrazpitik datozkigun materialetaz osotua izaten ohi da: zura, mineraleak, substantzia biologikoak... Materiale hauk berak gainhartuz, gaurko gizarte kontsumista mantendu eta bultzatu ere egiten ditu kapitalak.

Horregatik gizarte honen aurrean geure buruari planteiatzen diogun edozein alternatibak, Lurraren baliabideak eta berauen probetxamendua kontutan hartu behar ditu (ba dirudi, gaurregun nahiko ahantzia dugula puntu hau).

Autonomia eta baliabide naturalak Euskal Herrian

Probetxamendu honek arrazionala izan behar du eta Herriaren alde egon behar. Arrazionala esatean, baliabideen probetxamendua kontextu global baten barruan sartu behar dugula esan nahi dut. Hau dela eta, gaurko zarrastelkeriarekin bukatu egin behar. Honek maila guztietan planifikapen serioa egitea exijitzen digu. Horretarako, talde zientifiko batzu sortu egin behar ditugu, planifikazio hori egiteko gai izango direnak.

Bestetik, zientziak Herriaren alde egon behar duela esatean, talde horik nolabait munizipalizatuak izan behar dutela adierazi nahi dut. Momentuz, baliabideak Euskal Kontseilu Nagusiaren babesean izan beharko lirakekeela, gaurregun dauden transferentziak eta Gobernu zentralari exijitu behar dizkiogunak kontutan hartuz.

Baina zernolako talde izan daitezke?:

— Euskal Herrian nahitaezkoa dugu arrantza bultzatzea eta prozesu honetan biologiak ba du zerikusirik. Momentu honetan problemarik latzenetariko bat 200 miliena da. Baten batek pentsa dezake, estatu batzuk hartutariko jarra haur arrantzari eta berari bakarrik dagokion zerbait dela. Ni neu geologiaren ikuspuntutik ez nago horrekin batera. Geologiak zerbait dakienari ez zaio izkutatzen, itsasertzean —plataforma kontinentala delakoan hain zuzen— datzan aberastasuna, petrolio, gas eta mineraleen aldetik zein elikagaien aldetik (algak, etab.). Hau dela eta, arrantza

bultzatu behar dugu eta geure itsasertzea ezagutu eta aztertu ere. Gainera, baliabide horien praxis berberean sartu behar.

— Nekazaritza arloan ere ba dago zer esanik. Hor dugu Edafologia, zulu ezberdinak eta berauen bereizgarriak aztertzen dituen zientzia. Euskal Herriko mapa edafologikoak egitea, derrigorrezkoa dugu eta zulu-moeta bakoitzari dagokion erabilera ondo finkatzea ere: nekazaritza (zer moztatzea) edo etxagintza.

Honekin batera Geomorfologia dugu, higadura (erosioa) eta beronen ondorioak aztertzen dituen zientzia. Euskal Herrian pinadiak oso eztabaidagarriak izaten ohi dira eta zientzia aplikatuz, berauek sortzen dituzten kalteak finka ditzakegu eta alternatibak jaso ere. Hau guztiau eta gehiago, nekazaritza sindikatuekin batera (EHNE).

— Meatzaritzaren garrantzia nabaria izan dugu Euskal Herriaren historian zehar. Ingelesekin ondo ezagutzen dute Bilboko ezkerreko burdina (Gallarta, Trapaga, Somorrosto...). Oraindik ere ba dugu meatzerik: Nafarroako potasa, Oiartzun, Bera, Gallarta... Meatze hauk ondo planifikatzea eta eskaintza eskari arrazional baten funtsean ipintzea, hau guztiau erakunde publiko baten babesean, helburua izan daiteke.

— Ur-problema: problema latza Euskal Herrian benetan. Lurrazpi eta lurgaineko ura neurtu eta kontrolatu egin behar dugu. Hidrologiak eta hidrogeolo-

giak lagunduko gaituzte hori egiten.

— Energia arloan ere ikerpenari ekin behar diogu. Ura, haizea, ikatza, mareen gorabeherak, eguzkia... nola probetxa arrazionaliki.


Hemen aipatu ditudan arloetan eta beste askotan ere, talde zientifikoak beharrezkoak ditugu. Talde hauk osatu behar dituen jendea, Euskal Herriko unibertsitatek irreten dena izan behar da eta ahal den neurrian euskalduna (hontaz ere erradikalak izan behar); euskara zientziara eraman behar dugu eta.

Talde hauek, deserdirapena dela eta, eskualdeka lan egin beharko lukete, baina koordinaturik. Kontutan hartzekoa da, zientzia mailan egin beharko dugun ikerpenak, desarroilo arrazionalagoa ekarriko digula eta lanpostu gehiago sortu ere: arrantzan, nekazaritzan, iker-tokitan...

Azaldu ditudan ideiak, behin baino gehiagotan kaleratuak izan dira; azken aldiz, EGIN-en agertu zen Etxezarretaren artikulua baitan (78011012). Denon artean sakondu egin behar dugu arazo hau eta teoriatik praktikara pasa. Udal hauteskundeak aurrean (?) ditugu eta udaletxeetan talde hauk izan beharko dira.

Ea noiz jotzen dugun zientzia, Euskal Herria askatu eta deserdiratzeko bide-tzat!!

Gizaki



Zinema autorea dena

“Norbere burua haiei eskainiz gero, ametsak eta fantasiak ez al dira benetan gertatzen?”



“Gauzak erabat asmatzea besterik ez dudala egin iruditzen zait. Beti. Ez dut desberdintasun handirik nabaritzen fantasia, amets eta gertaera errealen artean.”



“Thes egiten dion projektu batetan oharkabeen lotua eta bahitua sentitzen dut ene burua geroago gehiago.”

Rimini —non 1920an jaio baitzen— eta bere haurtzaroa beti izan dira presente Federico Felliniren zineman. Ikastetxe erlijioso ilun eta autoritario batetan estudiatu zuen. Hondartza bakarti eta hotz batetara joaten omen zen bere gainezkako fantasiak ikastetxe itxi hartatik irtetera bultzaturik. Behin batean,

herriko plazan zirko humil bat izan zen eta clown baten adiskide eginik beraiekin aldegin zuen. Laster harrapatu eta itzuli beharko zen ikastetxera. Baina Federico Fellinik beti miretsiko du geroztik zirkoa (“Ene ustez, zinema zirkoaren antzerakoà da” zioen anitz urte beranduago), pailasoak (“I clowns”,

1970, delakoa gorazarre bat da geroago (isean) eta bizitza bohemioa, bere filmetan agertu den bezala. Riminiko delakoa luze, mediokre eta indolenteen oroimena da Fellinigan mantenduko da beti (“I will be with you”, 1953, hontaz izanen zen). Hantxe bertan urterekin Charlot kausitu zuen zinean pantailan.

n. Federico Fellini



Ahal izan zuenean, bere Rimini pro-
vintzianoa kitatu eta Florenziara joan
zen. Hemen karikaturista egin zen (ez
zen ez eskale ez artista, alegia), geroago
filmekin isladatuko dituen figura grotes-
koak zirriborratzen. Komiketako gidoi-
luzle bezala ere lan egin zuen (bere
lehen filme propioan, "Lo sceicco bian-
co", 1952, fantasia arrunt hauen mun-
duaz da). Erroman "Il Popolo" kazeta-
ko erredaktorea izan zen gerla aurrean.
Gerla mundialak sakondu eginen zuen



miseria eta Federico Fellini, ordurarte
eskasian ibilia, deus gabe kausitu zen.
Gerla garatan eta errestaurant batetan
ordaintzeko sosik ez duenean Aldo
Fabrizi komikoak hesturaturik atera eta
bere konpainia teatralera sartu zuen.
Konpainia honekin ibili zen Italian
barrena, hiri eta herrietatik, gidioak
idazten, dekoratuak pintatzen eta aktore

bezala. Miseriarik tristeenean ere ilusio-
rik oinarrikoenak mantentzen dituzte-
nen giroa zen, gerlaren eskasiarena:
komiko pobre eta bohemoena eta uni-
bertso bital oso bat susmatu zuen hor
Fellinik ("Luci del varietà") filmean bil-
du zuen giro guzti hau).

Gerlaondan F. Fellinik enkarguzko
karikaturagintza du ogibidetzat. Halako
batean Roberto Rossellini datorkio gidoi
labur baten eske, idazten dio eta, obra
hura, "Roma, città aperta" (1945) izate-
ra helduko zen: neorealismoa mundu
guztira zabalduko duen filmea, hain
zuzen. Gerlaondo hontako giroa eta
situazioa neorealismoak azaltzen duen
huraxe da, izan ere. Ondoren R. Rosse-
llini laguntzen du "Paisà" (1946) egiten,
eta jadanik bere karrera zinematografi-
koa hasten du. Gero Alberto Lattuada
laguntzen du elkarlanean "Senza pietà"
(1947) egiten eta beste anitz zinelan...
Hain zuzen, 1950an Alberto Lattuada-
rekin elkarlanean "Luci di varietà"
zuzendu zuen, music-hall anbulantearen
miserietaz. Bere lehen zuzendaritza.

1952an "Lo sceicco bianco" zuzendu
zuen berak bakarrik, fotonobelaren bar-
ne munduaz, kontsumismo ilusionistaz
eta funtsezko kimeraz. 1953an "I villete-
ni" egin zuen, filme zinezko bat, auto-
rearen gaztaroko Riminiko giro indolen-
teaz. 1954an "L'estrada" egin zuen, filme
xarmangarri eta arrakastatsu bat. Fede-
rico Felliniren neorealismoa jadanik fil-
me hauetan neorealismo erromantiko
bat da. Errealismo eta miseriarren gai-
nean diztira poetiko bat isladatzen da.
Charlotten filmetan ere agertzen den
miseriarren erromantizismo horixe, hain
zuzen. 1955ean "Il bidone" egin zuen,
estafadoreen giroari buruz. Gero "Le
notti de Cabiria" (1957), emagaldur
baten umilazio eta esperantzaren kanta
bat. Bere beste filmeak bezala herejeak
ziren neorealismoarekiko.

Geroztik Felliniren filmagintza per-
sonalagoa bihurtuz joanen da, eta post-
neorealismoaren garaia hasiko da.
Izan ere iragana da postgerlako situazio
soziala, iparraldean bederen, eta beste
zinema moeta bat egiten hasten da.
1959an "La dolce vita" filmatu zuen,
erromatar goiburjesiarren zabarkeria

moralaz eta arrakasta handia izan
zuen.

Ondoren epe berri bat irekitzen da F.
Felliniren filmagintzan. Estilo fellinia-
noa sortzen dela esan daiteke. Barne
psikoanalisi espektakulo surrealista
bihurtzen da "Otto e mezzo" (1963)
deritzon filmean. Zinema zuzendari
baten aitormen inpuberkoak, gogoeta
arrenkuratuak, haurtzaroko eta sexual
frustrazioak... oro barrokismo gehitu
batetan. Delirio bitalista hau espektaku-
lo oniriko eta pirotekniko xarmangarri
bat da. Ondoren, molde estrefalarario ber-
berak eta koloretan "Giulietta degli spi-
riti" (1965) filmatu zuen, bere emaztea-
ren (Giulietta Masina) pertsonalitateaz
(funtsean bere buruaz hala ere), baina
aurrekoa baino filme eskasagoa da
ondorioetan.

1969an egiten duen "Satyricon" fil-
marekin ere molde hontan sakontzen du
erabat. Berreraiketa historikoa erabili-
rik, misterio, parabola, mito, gogoeta,
aipamen eta sinboloen orjia monstruo
bat eraikitzen du. Petronioren obra eder-
tasun barroko eta sail batez berregiten
da.

Ondoren "I clown" (1971) eta "Ro-
ma" (1972) egin zituen, azken hau hiri-
buruko oroimen eta bibentzietatik irudi-
menez eta distorsionatutuki sortuta.
1974an "Amarcord" filmatu zuen, bere
Rimini jaioterriari buruzko oroitzapene-
tan oinarriturik, imajinazioz eta barro-
kismoz gainezka. Federico Felliniren
estiloan oroitzapena eta narrazio perso-
nala nahasi egiten dira artifiziozko sue-
kin, dekoratu monstruo eta krema kolo-
rezkoekin arkitektura harrigarri bateta-
ra iristeko.

"Casanova" (1977) filmea ere, bete
betean sartzen da estilo felliniano hon-
tan. Berreraikidura historiko erabat
subjektibo bat da. Barrokismoa ia enpala-
gosoan, estrefalararioa eta dekadentea, non
naturalismoa erabat ezabatua gelditzen
den. Espresionismo alemaniarra hasi
zen oldartzen naturalismo fotografikoa-
ren aurka. Naturalismo objektibo honen
kontra irudimena, subjektibitatea eta
barrokismoa gehien desarroilatu dituen
dimentsio guztietan Federico Fellini izan
da zinemagintza modernoan.

Joseba Sarrionandia

GRAMATIKA gaiak GRAMATIKA

IKURRA	ESAERA	ADIERAZPENA	ERAGIKETA	ERAGIGAIK		EMAITZA	ADIBIDEA
+	gehi	$a + b$ a gehi b	batuketa	batugaiak		batura	batugai + batugai = batura $5 + 6 = 11$ bost gehi sei berdin hamaika
-	ken	$a - b$ a ken b	kenketa	kenkizuna	kentzailea	kendura	kenkizun - kentzaile = kendura $9 - 2 = 7$ bederatzi ken bi berdin zazpi
×	bider	$a \times b$ a bider b	biderkaketa	faktoreak (biderkagaiak)		biderkadura	faktore \times faktore = biderkadura $4 \times 2 = 8$ lau bider bi berdin zortzi
				biderkakizuna	biderkatzailea		
÷	zati	$a : b$ a zati b	zatiketa	zatikizuna	zazitzailea	zatudura	zatikizun : zazitzaile = zatudura $10 : 5 = 2$ hamar zati bost berdin bi
	ber	a^b a ber b	berreketa	berrekizuna	berretzailea	berredura	berrekizun \times berretzaile = berredura 3^2 hiru ber bi berdin bederatzi
$\sqrt{\quad}$	erro	\sqrt{b} a-erro b	erroketa	errokizuna	errotzailea	erro(dura)	$\sqrt{16} = 4$ erro(kizun) = erro(dur)a bierro hamasei berdin lau

Zenbakien erabilera(III)

Artikulu-serie honekin bukatu aurretik, zenbakiari buruz diharduen liburu baten aipamena egingen dugu. Duen praktikotasunagatik, guztiz interesgarria da Ikastola-munduan; baina mundu mugatu horretaz gainera, zenbakiak nola erabil daitezkeen eta, orohar, Aritmetika eta Geometria euskaraz nola landu ahal diren ikasi nahi duen edonorentzat gerta daiteke baliagarri. Liburuaren izena hau da: "Matematika. Hiztegia, hizkera, irakurbideak". Egi-learena, Mikel Zalvide.

Aipaturiko liburu honetan, Matematikazko oinarriko eragiketak nola deitzen diren, elementu desberdinen izenak zeintzu diren eta eragiketok euskara hutsez nola buru daitezkeen adierazten da. Bere horrietan zehar, batuketak, kenketak, biderkaketak, zatiketak, beteketak eta abar egiten ikasteko bidea ematen zaigu. Ba dugu hor, beraz, berriro eskolatzeko modua; orain arte erdaraz baino egin ez duguna, euskaraz ikasi ahal dugu. Laburpen gisa, liburuan erabiltzen den hiztegia nolakoa den ikusteko, liburuko koadro bat emanen dugu.

Eragiketez gainera, zenbakien adierazpenez, zenbaki-atzizkiez, era desberdinetako neurriak adierazteko moduez, sinbolo matematikoez eta abarrez, zenbait arau proposatzen dira, kontsultarako oso praktikoa gertatzen direlarik.

Proposamenen artean, zenbakien idazkerari buruzkoa oso kontutan hartzekoa da. Normalean idazleak dudatan ibili ohi gara numeralak idaztean. Nola egin, loturik, banaturik...? Liburuan erregela hau proposatzen dira:

- ehunetik beherako zenbakiak lotuta idaztea.

- ehuneko zifra, hurrengoetatik aparte idaztea.

- milakoetan, zifraren izena eta mila

hitza aparte idaztea, eta hauen ondoren koma bat jarzea.

- milioikoetan, milakoetan bezala jokatzea.

Arau hauetan finkatuz, hona hemen zenbait adibide, aipaturiko liburutik hartuak:

23: hogeitahiru.

57: berrogetamazazpi.

84: laurogeitalau.

357: hirurehun eta berrogeitamazazpi.

517.9 .2: bostehun eta hamazazpi mila, bederatziehun eta bi.

13.541.280: hamahiru milioi, bostehun eta berrogeita MILA; BERREHUN ETA LAUROGEI.

Ikusten denez, proposamen hau onartuz, bide oso praktikoa eta argia hartzen da; eta, dudarik ez, batasun minimora heltzeko, era honetako irtenbideak onartu beharko ditugu. Eta nik neuk orain arte horrela egin ez badut ere, noizbait konkretatzen hasi beharko dugula uste dut. Zergatik ez, ba, bide hau hartu?

BESTE ZENBAIT PROBLEMAREN EBAZPENA

Esandako liburua alde batera utziz, goazen orain beste zenbait arazo aipatzera. Emango ditudan adibideetariko batzu "Alfabetatzen" liburutik hartu ditut.

Zenbaki dezimalak. Behin baino gehiagotan agertzen zaizkigu, eta ohituraren faltaz isilik geratzen gara. Ene ustez, koma hitza esan eta dezimalak banan banan ematea komeni dela uste dut. Irtenbide oso praktikoa gertatzen da. Adibidez:

4,52: lau koma bost bi (Posible da, baina zailagoa, lau koma berrogeitabi esatea).

0,253: zero koma bi bost hiru (zero

koma berrehun eta berrogeitamahiru).

Eta zero izeneko zifra agertu denez, beronen aipamena egingen dugu. Jende asko beldur ohi da hitz hori esateko; eta berorren orde, hutsa edo bapez (bat ere ez) esaten da. Ene ustez, oster, zero hitza internazionala da, eta, beraz, euskarazkoa ere. Gainera desberdintasun semantiko hau dago:

zero: zifra baten izena.

hutsa: ezereza. Airerik gabeko lekutan hutsa dago.

Beraz, lotsarik eta beldurrik gabe, zero hitza erabili behar dela uste dut.

Telefonoak. Telefono-zenbakiak binaka ematean dudak sortzen dira euskal sistema hogeitarraren kausaz. Horregatik, hobe eta errazago gartatzen da, zenbakiak banan banan ematea. Adibidez: 416 94 23: lau bat sei bederatzi lau bi hiru.

Temperatura. Gaur egunean, informabideetan atmosfera eta itsasoko tenperaturari buruzko informazio asko ageri ohi dira. Zenbait problema sortzen dira deklinazio-atzizkiekin eta tenperatura negatiboekin. Esatemoduak hau izan daitezke:

10° C: hamar gradutako tenperatura.

-5° C: minus bost gradu.

Neurriak. Neurriak adierazteko, ondoko modura erabiltzen dira zenbakiak:

bost metro zabal

litro eta erdi ur

lau litro ardo

hamar kilo irin.

Azaldutako problemak eta beraien ebazpideak modu telegrafikoz egin ditugu, zenbakiak bizitza arrunteko ardo askotan erabiltzen direlarik, kontsultarako errazago gerta dadin asmoz.


J. R. Etxebarria

GURUTZEGRAMA

21.

	B	I		M	A	R	A	I		K	A	N	B	O
X	A	N	I	H	A	N	D	I	A		E		S	
A	S		I	O	I		K	O	R	I	U	T	H	O
H	E	R	R			G	E	R	O	K	O		A	T
R			A	L	F	E	R		L	U	K	U	R	U
F	R	O	G	A		T		L	A					R
A	I	Z	A	N		A	H	O		G	B	R	I	A
T		L	A	U	R	A	K	B	A	T			E	
B	A	T	E	K		I	R	A		X	I	T	A	
R					B	A	R		Z	A	T	A	R	
E	R	R	I	P	A		E	T	Z	A	N		H	
R	A		E	R	R	A	Z	U		B	O	E	A	
A	K	E	L	A	R	R	E		J	A	I		R	R
T	L		G	A	L	T		Z	A	G	O	R	R	I
U	D	A	L	A		B	Z	E	N	A		U	I	

22.




Larry Nash

22. ZENBAKIA

Euskal Herriko probintzietatik bati dagozkion hitz asko ditu gurutzagrama honek.

LUZETARA: 3.-Euri gabeko gerai. 6.-Izu egin aita urun da. 7.-Urre (símbolo kimiko). 8.-Ixilki. 10.-Tontor. 13.-Metalezko makila. 15.-Motozykleta. 17.-Gehiegi. 19.-Bezala. 20.-Probintzia honetako bigarren herria. 22.-Oraingo Txinako leader. 23.-Lurrazpiko bide. 24.-Probintzia honetako hiriburua (2 hitz). 29.-Itsasoan dagoena. 30.-Bigarren pertsonako izenorde, ergatiboan. 31.-Nun han sua. 32.-Mutilak anaia du; reskak, 36.-USA (inizialak). 37.-Musulmanen liburu sakratua. 38.-Rhenio (símbolo kimiko). 39.-Hegoaldeko Txinako jende edo hizkuntza. 41.-Probintzia honetako euskaltzain. 43.-..... ala ardo, haurren jokoa. 44.-..... Korbut, Errusiako gymnasta. 46.-Nigeria-ko jende. 49.-Zitroen "zaldi". 50.-Atziki partitiboa. 52.-Arauean akort ez den. 55.-Probintzia honetako ta Euskal Herriko lehen idazlea. 57.-Gizonezko. 58.-Dut, bizkaieraz. 59.-.....-plen (bete-beterik). 60.-..... Smith, Zimbabwe-ko leader. 62.-Igan, bizkaieraz. 64.-"..... Mari Migel...". 65.-Daniel probintzia honetako dramagile. 67.-Txinako edaria. 68.-Zein ordu-tan?

GOITIK BEHERA: 1.-Probintzia hau (2 hitz). 2.-..... da? (Zer produktu?, probintzia honetan). 4.-Ruthenio (símbolo kimiko). 5.-'Lehenago' adierazten duen aurrizki. 6.-Euskal sindikal talde. 9.-Probintzia honetako haizulo. 10.-Maila. 11.-Kasik. 12.-Probintzia honetako karnabal eta dantza. 14.-Galdetzeko partikula. 16.-'Urrun' adierazten duen aurrizki. 18.-Probintzia honetako simboloa. 21.-'Disgustua' adierazten duen oihu. 22.-Zoaz, hiketan. 24.-Adizki laguntzaile. 25.-Zakur. 26.-Epotxa. 27.-Atze, probintzia honetan. 28.-Nor, bizkaieraz. 33.-Probintzia honetako libai nagusia. 34.-Probintzia honetako mendikatea eta herri. 35.-'Kontra' adierazten duen aurrizki. 37.-Greziar letra (X). 39.-Probintzia honetako bertsolari ezagunena. 40.-Klarki. 42.-..... Txi Minh. 45.-Probintzia honetako beterrria. 47.-R. M. Azkue. 48.-'El Caserio'ren konposatzailea. 51.-Ekialdeko Afrikar herri. 53.-Donostiko fottball-saila. 54.-Gallio (símbolo kimiko). 55.-M edo PM. 56.-Oso (gipuzkeraz). 61.-Atziki distributiboa. 63.-Ekin, bizkaieraz. 66.-Emakumea deitzeko hitz.



LABYRINTOA (3)

Aurrekoak koadratuak bazi-
ren, oraingoa biribila duzu. Beron-
nen jomuga zera da, erdiraino
heltzea, bertako altxorra lortze-
ko. Ez du tranparik eta eroape-
nez haraino joan zaitzke.

EUSKARA DESAGERTU ARREN, BIZITZAK AURRERA JARRAITUKO DU, JAKINA!

Euskaromaniakoak beti dabilta leku guztietan euskara sartu nahirik; seme-alabekin etxeetan, dendariekin kaleetan, aldibereko itzulpenak eskatzearekin biltzarretan. Zoraturik daude, baina soluziobiderik ez dagoen bitartean jarrera indibidualari jarraitzen zaizkio. Beste batzu aldiz, patxadaz hartu dute euskararen arazoa. Aberri honen ordezkari legalak eta ez legalak kontatuta 0/0 85tan ez dakite euskaraz eta dakitenen artean gehienek helburuak lortzeko erdaraz egiten dute.

EUSKARA EUSKALDUNON BIGARREN HIZKUNTZA BILAKATU DA

EUSKALDUNOK BITARTEAN AURRERA DARAMAGUN BURRUKA
HONETAN ALDE POSITIBO ETA NEGATIBOAK KONTUTAN
HARTZEN DITUGU ALDE GUZTITATIK

10 urteren buruan Euskadiko ikasletariko 50 0/0k agian euskara estudiantuko du.
10 urteren buruan euskaldunok 50.203 gehiago izanen gara.
10 urteren buruan Euskadin 200 baino gehiago izanen da ikstatola kopurua.

Orain 60 urte baskoetariko bitik batek euskara zekien. Gaur aldiz 10tik 2k.
Duela 70 urte, euskaldunetariko bitik batek ez zekien erdararik.
650.000 euskaldunotarik 60 0/0 baino gehiagok hobe egiten du erdaraz euskaraz baino.
Euskaradunetariko 95 0/0 euskaraz baino hobe, erdaraz irakurtzen du.

Egoera hau erroitik aldatzeko ez dute balio jarrera indibidualek
Bakarrik, botere publikoen ekintza ausart eta erabakior batek salba dezake euskara
Exiji ezazu, eska ezazu zuk ere, orain euskaraz egiteko zure eskubidea
euskaraz entzuteko zure eskubidea orain

- Gure haurrak euskaldun diglosikoak izan ez daitezen
- Gure bigarren hizkuntza euskara izan ez dadin
- Kultura unibertsalaren adierazpidea izateko

EUSKARA HUTSEZKO TELEBISTA IRRATI KATE BATEN SORTZEA
EUSKARA HUTSEZKO TELEBISTA IRRATI KATE BATEN SORTZEA



Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

Horrexegatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hitzaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.

